



uk

68. zenbakia / 2004 urriak 1

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Oteiza Leioan. Asier Mentxaka.
- 6. PLAZA. Leihatila, Josu Esnaola. Maddi Albizu soziologoa.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Usategi.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
- 23. AGENDA.

SAKONEAN

- 24. ALBUMA. Marxa bilguneak. Asier Mentxaka.
- 26. ARGAZKIA. Prentsa argazkilariak. Oskar Martinez.
- 28. BERBETAN. Andoni Ortuzar. Unai Brea.
- 32. FOTOGRAFIA. Getxoko erdi aroko azoka. Asier Mentxaka.

KULTURA ETA AISIA

- 36. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Zineklubaren denboraldia berria.
- 37. MUSIKA. Dubby musikari sopoloztarra. Diskoen erreseinak.
- 38. LIBURUAK. Sautrelaren itzulera eta Esti Ezkerraren zutabea.
- 39. KOMUNIKAZIOA. ETB-1, udagoineko eskaintza.
- 40. SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
- 41. ELKARRIZKETA. AEEKo Iratxe Marta. Unai Brea.

EUSKARAZ

- 42. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Urtzi Iglesiasen eskutik. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.

AMAITZEKO

- 44. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan? Bilboko Ogetamairu.
- 46. HOROSKOPOA.
- 47. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 48. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 49. FLASH BACK. Algortako abertzaleak, 1932.
- 50. AITORMENAK. Gorka Otxoa. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Asier Mentxaka (Arrigunaga)



30 Andoni Ortuzar

Berbetan

Abanto-Zierbenako semea da eta 42 urte ditu. Gaur egun euskal irrati-telebista publikoko lema zuzentzen du

37 Dubby

41 Iratxe Marta

12 Garikoitz Fullaondo

32 Erdi aroko azoka

50 Gorka Otxoa



Euskaraz egin nahi baduzu...
Euskaltegian, noski!

Hizkuntzak ikasteko mirarizko metodori ez dago. Baina, zorionez, azkar, erraz eta berme osoz ikasteko aukera duzu. Euskaltegian.

Laguntzaileak:



Antolatzaileak:



Musika eta Arteko profesionalek zuzentzen dute gure ikastegia, guztiak ere goi mailako prestakuntza sendodunak. Musikan barneratu nahi duten guztiei bide hurbila eta praktikan oinarritua eskaintzea da gure helburua.

- Pianoa eta beste musikatresnak lantzeko eskolak, bakarkakoak eta edozein adineko zale zein profesionalentzat
- Musikaren Teoria eta Musika Hizkuntza eskolak
- Perfekzionatze Ikastaroak
- Kontzertuak sustatzea
- Kantu erreperitorioa
- Hitzaldiak
- Pintura Eskolak

Aldegobarrri, 2
48992 Algorta - Getxo
Tel: 626 74 55 23 / 665 74 27 25

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
 Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buenetxea, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz koptatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
 © Boluntzarreta
 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da

	Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du	
Itxasgane Extea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta		
	GETXOKO UDALA Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du	
	Leioako Udala Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du	
	Erandioko Udala Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du	
	Bizkaiko Foru Aldundia Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du	
	Fundación Grupo Eusko Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du	

UK
 Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!
 BKK 2095 0121 10 91 02483676
 Boluntzarreta

gugeu

Hau aste hau!

Akaso eguraldiak txarrera egiten duenean gehiago ikusten dugulako, konturatu barik ale hau telebistari oso lotua atera zaigu. Telebistari oro har baino, ETBri oso lotua zehaztu beharko genuke. Beharbada aldizkari hau egiten dugunok gehien ikusten dugun katea delako gertatu zaigu hau. Gure elkarrizketa nagusiaren orrialdeetara (“Berbetan” deitzen dugun atala) Andoni Ortuzar EITBko zuzendari nagusia dena ekarri dugu eta esan digun gauzen artean, euskarazko katea euzretzat katerik garrantzitsuena eta inbertsio gehien jasotzen dituen dela iruditu zaigu azpimarragarriena. Hala bedi.

Bestetik ale honetan ere, *Sautrela* literatur saioaren itzuleraren berri ematen dugu. Saio eder, kuttun eta eredugarria. Eta euskarazko telebista publikoaren programazio berria ere landu dugu komunikazio orrialdean. Esaterako, Euzkitzek *Sorginen Laratzaren* berrikuntzak azaldu dizkigu. Eta hau ez da guztial Gorka Otxoa, *Vaya semanita* umorezko saio arrakastatsuko aktoreari egin diogun elkarrizketa pertsonala topatuko duzue azken orrialdeko “Aitormenak” atalean.


Merezimendu osoz, danon ahotan dabil *Vaya semanita* eta audientzia ikaragarri handia omen du. Guri asko gustatzen zaigu *VS* eta saioa ikusteko ere elkartzen gara sarritan. Euskaraz ere pozik ikusiko genuke *Hau aste hau!*, izan ere, honezkero *Mr. Bean* oso ikusia daukagu. ⁴

UKko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxa: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Goizero erosi > berria



[irudia]

SAKONETA KIROLDEGIA. 2004KO IRAILA

Oteiza Leioan / Udazken honetarako Guggenheim museoak Oteizaren atzera begirako erakusketa iragarri du. Horren harira, Uribe Kostan haren eskulturarik ore zegoen jakin gura izan dugu: bakarra dago, orain dela gutxi kokatua. Bere eskulturak titaniozko “ontziaren” barruan ez zituela ikusi gura ez zuen isilpean gorde Oteizak: gorrek ere entzun zuten hori. Ziurrenik atzera begirako horren garaian titaniozko leihoetan islatuko diren hodeiak beltraz izango dira. Gure eskualdeko Oteizaren lanak direla eta, orain arte geneukan Oteizaren erreferentzia bakarra Sakonetako kiroldegiko sarrera zen, Jorge Oteizaren “kurxa-metafisikoak” oinarritat hartuta Galdos anaiek diseinatu. Baina orain dela gutxi Kultur Exe berriaren ondoan jarru dute artista menderakaizaren sorkuntza bat, herriko leihoetan argitsu islatzen dena. / Argazkia: Asier Mentxaka

Leihatila

> Josu Esnaola

Getxo auto barik

Irailaren 16tik 22ra bitartean Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea izan dugu Getxon, *autorik gabe, kale seguruak haurrentzat* lelopean, eta horren inguruan ekitaldi mordoak izan da herrian, alkatea bera ere gurpildun aukian aurrera eta atzera ikusi ahal izan dugu. Nahiz eta askotan aurpegia garbitzeko itxurakeria baino ez izan, ezer baino gehiago bada eta horrekin konformatu behar. Hala ere aurtengoan Telletxeko plazan ikusitakoak aho bete hortz utzi nau, izan ere bertan haurrentzako bide-hezkuntzako tailerra zegoen, ea hura zer zen ikustera hurbildu eta hara non umeak motordun ibilgailuetan patxada ederrean, bakoitza batean, jakina. Hori da umeengan txirringa edo kutsatzen ez duen beste ibilgailuren bat erabiltzeko ohitura sortzea, bai horixe.

Egun horretako kontua bakarrik balitz, gaitzerdi. Asteburuan kirol portura joatea ere nahikoa dugu txiki-txikitik umeak motordun ibilgailuetan kutsadura akustikoa sortzen zein ederto dabilzan ikusteko. Orain astebate Aixerrota inguruan, kanposantu aldean, gerrira ere ailegatzen ez zitzaidan umeak motor txiki batean aurrera eta atzera etengabe bueltaka, eta gurasoak gustura, zorian batean berari begira. Bai, irailaren 16tik 22ra Getxon autorik gabe, kale seguruak haurrentzat, gainontzeko egunetan Biba Super Sur! 4

IRITZIA

Eguraldiak txarrera egiten duenean telebistaren kontsumoak ikaragarri egiten du gora. Telebistaren izaeraz, hain zuzen ere, gogoeta eskatu diogu Maddi Albizu soziologoari.

Telebista gutxiago edo ekintza gehiago

Telebistaren hastapenak 1884. urtekoak dira. Historiak Paul Gottlieb Nipkow asmatzaile alemaniarri eman dio telebista sortzeko estraineko ahalegina egin izanaren ohorea. Asmakizun hark, ordea, ez omen zuen ondoegi funtzionatu eta 1926ra arte itxaron behar izan zen ametsa egia bihurtzeko: izan ere, orduantxe sortu zuen John Logie Baird ingeniari eskoziarrak izpi infragorrien bidezko aparatua. Jakina, Lehenengo Mundu Gerrak zerikusi zuzena izan zuen telebistari emandako bultzadan, gerrarako landutako irrati-transmisioari eta zirkuitu elektrikoei esker garatu baitzen, hein handi batean, telebistak behar zuen teknologia aurreratuta hura. Honek, berriz, ez du esan nahi gerrari ezertxo ere eskertu behar diogunik. Pentsatu ere ez.

Orduz geroztik gauzak askotxo aldatu dira: satelite bidezko telebista (orain kable bidezkoa), telebista interaktiboa edota telebista bidezko interneta (azken bi hauek oraindik eman gabe dituzte espero ziren emaitza ikusgarriak). Telebistak ekarri

digun aldaketarik nabarmenena, ordea, berehalakotasuna da. Ez dago inongo zailtasun teknikorik munduko edozein bazter eta txokotan jazotakoaren berri zuzena izateko, gertatzearekin batera alegia. Honi esaten omen zaio “informatuta egotea”. Zailtasunak izaera politikokoak dira. Baina ez naiz telebistaren eta interes politikoen arteko lotura maltzurraz ariko, askoz ere gai xamurragoari buruz baikizik. Harira.

«Zertarako nahi dugu horrenbeste informazio ezertan ere erabiltzeko asmorik edo/eta aukerarik ez badugu?»

Gizakion erantzunak hasierako informazio edo estimulu baten emaitzak dira beti (Sistemen Teorizaleek honako modu pedantean adieraziko lukete hau: lehenengo *in put* bat dago; *in put* horren ostean *out put*-a sortzen da): “Aterkia irekiko dut euria ari duela” (informazioa=euria ari du; erantzuna=aterkia zabalduko dut). Hau oso prozesu ximplea da. Bada gaur egungo telebistak prozesu ximple hau eten egin du. Telebistaren bidez jasotzen ditugun milaka eta milaka estimulu edo informazioen aurrean ez dugu ia erantzunik ematen. Bestela esanda, *in put* gehiegi eta *out put* gutxiegi. Are argiago adierazita: zertarako nahi dugu horrenbeste informazio ezertan ere erabiltzeko asmorik edo/eta aukerarik ez badugu? Zertarako jakin nahi dugu Beslán edo Bagdad izeneko herri batean ehunka ume, gizon eta emakume hil direla horren aurrean eman dezakegun erantzuna hutsaren hurrengoa bada? Erabat neurritz kanpokoak dira telebistak ematen dituen informazioa jasotzeko aukerak gure gizartean ekintzarako dauzkagun aukerekin alderatuz gero. Desoreka hau konpontzeko bi modu besterik ez daude: telebista gutxiago edo ekintza gehiago. 4

Maddi Albizu (sozioloa)

**Iraganez doa denbora* beti / USATEGI**

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > gobela futbot zelai berria

Irudiak eta manipulazioa: Gorka Vazquez

[talaia]



Erakusketan ikusi ahal izango diren hiru argazki (egileak: Juan Gomez, Aitor Galbarriartu eta Mikel Martinez)

natura > iraileko marea biziak

Gauza jakina da aldizkari honek sorreratik arreta handia eskaini diola fotografiari. Zorionez gure eskualdean argazkilari onak asko dauzkagu, eta gainera aldizkari honetan euren lanak argitaratzeko prest azaldu dira beti gehienak. Urte hasieran eskualdeko puntako hogeitaz argazkilari argazki bana eskatu genien. Argazki hauek arau bat baino ez zuten bete behar: UK aldizkariak hartzen zuten eremuan hartuak izatea, hau da, Uribe Kosta. Gaia librea zen. Argazki eder hauek aldizkariaren erdiko orrialdeetan argitaratu dira urtean zehar, eta eduki duten arrakasta ikusita, lanokin erakusketa antolatzea otu zitzaigun. Guztira hogeitaz argazki dira eta aurrerantzean eskualdeko kultur etxe gehienetan ikusiko badira ere, urriaren 7tik aurrera Algortako Satistegi tabernan hasiko du bere ibilbidea bertako irudiaren maisuak (Lobo Altuna, Pedro Zarrabeitia, Jon Bernardez, Asier Mentxaka, Juan Gomez, Mikel Eskauriaza, Konrado Mugertza...) bilduko dituen erakusketa honek. ^m

[talaia]

euskara > konpromisoa

“Konpromisoa” hartu duten lagunen agerraldia

Getxoztarrek euskararen aldeko konpromiso zehatzak hartzeko aukera eduki zuten Irailaren 24an. Kontseiluak gure ama hizkuntzaren alde norberak har ditzakeen konpromisoen zerrenda aurkeztu zuen Getxon, eta Getxoztar askok sinatu zituzten aurrerantzean bete beharrekoak. Hainbat pertsona ezagun bertaratu ziren euskararen aldeko sinadura ematera, besteak beste, Iñaki Frieria, Endika Guarrotxena, Jabi Onaindia, German Kortabarría, Joseba Santxo, Mixel Sarasketa, Fredi Paia, Jon Azkargorta, Iñigo Landaluze, Joxi Arakama, Unai Elorriaga, Joseba Butron, Paul Bilbao, Gorka Uriarte, Jokin de Pedro... Aukera galdu zutenak ez daitezela larritu, oraindik ere konpromisoa hartzeko aukera zabalik dago eta: horretarako Getxoko kontseilua osatzen duten taldeetara hurbiltzea besterik ez daukate. ^m

kale izendegia > Jose Ramon Aketxe

Elexaldeko eskolak Leioako haurrak doako irakaskuntzara hel zitezen sortu ziren, baina behar adina dirurik ez zegoenez bertoko maisuei ordaintzeko, Jose Ramon Aketxek 65.000 erreal ipini zituen bere patrikatik. 1872an Leioako kanposantua handitu egin zen bere ekimenez; hori gogoratzen duen hilarri bat paratu zuten San Joan elizako bobedan. Bestalde, 1891n gaur egungo Udaletxea eraikitzeko erabakia hartu zuten, eta Aketxek berak hartu zuen obra berria ikuskatzeko ardura. Bere testamentuan utzi zuen ondareari esker, San Joan elizako kanpandorrea konpondu zen, eta 10.000 pezeta laga zituen guztiz txiroak ziren leioaztarrentzat. Aspaldiko Leioaren alde hainbeste egin zuen ongileari omentzeko, Jose Ramon Aketxe plaza izena ipini zioten Elexaldeko plazari 1924an. ^m

GOIZEAN



Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fritu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA



*etorri
eta
ikusii!!*

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA KIZOL moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

**TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82**

Emakumezkoentzako eskola

Getxoko udalak **Emakumeentzako Jabekuntza Eskola** ipiniko du abian **Basauri eta Ermuko udalakaz** batera, eta Eskolaren lehenengo **ikastaroak urrian** hasiko dira

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sendotzeko bidean, Jabekuntza Eskola ipini du martxan Getxoko udalak, Basauriko eta Ermuko udalakaz elkarlanean. Emakumeek gizartean banaka zein taldeka daukaten garrantzia jabetzea, eta gizartean partaidetza handiagoa izateko bitarteko eta baliabideak ezagutzea daukate helburu ikastarook, eta azken batean, Jabekuntza Eskolak.



Emakume talde bat informatika ikasten

Emakume elkartetako kideei, kirol eta kultur elkartetako اندrazkoei, GKEetan lanean dihardutenei, sindikatuetakoei... eta orohar emakume guztiei begira sortu da Jabekuntza Eskola. Ermua, Basauri eta Getxoko udalek elkarlanean gauzatu duten ekimen honen lehen pausua emakumeentzako ikastaroak eskaintzea da; hala ere, bigarren urrats batean gizonezkoei zuzendutako ikastaroak prestatzea ere aurreikusten da (Basauriko udalak egina du urrats hori, eta arrakastagaz gainera). Ikastarook hil honen erdialdera hasiko dira, eta izena emateko epea urriaren 6ra arte dago zabalik.

Ikastaroen eskaintza

Getxon urritik abendura eskainiko diren ikastaroak hurrengoak dira: *Emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna* (astelehene-tan 17:00-19:00), *Munduko emakumeen literatura* (martitzenetan 10:00-12:00) *Bitartekaritza eta gatazken konponketa* (mar-

titzenetan 17:00-19:00), *Buruzagitza eta talde-lana* (eguztzenetan 10:00-12:00), *Emakumeen partaidetza politikoa* (eguztzenetan 17:00-19:00), eta *Jende aurrean hitz egiteko teknikak* (eguztzenetan 18:00-20:00). Ikastaro horiek guztiak Villamonteko Kultur Etxean izango dira, eta eurotariko bi

«Ikastarook Erromoko eta Villamonteko (Algorta) Kultur Etxeetan eskainiko dira»

Erromoko Kultur Etxean ere eskainiko dira: *Jende aurrean hitz egiteko teknikak* eta *Munduko emakumeen literatura*. Ikastaro denetatik bakarra izango da euskaraz: *Jende aurrean hitz egiteko teknikak*. Ikastarootara etorri, ikasi eta ikasitakoa erabil dezagun bizitzan! m

IKASTAROAK

- **Emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna.** Urritik maiatzera.
- **Munduko emakumeen literatura.** Urritik maiatzera.
- **Bitartekaritza eta gatazka konpontzea.** Urritik azarora.
- **Buruzagitza eta talde-lana.** Urritik abendura.
- **Emakumeen partaidetza politikoa.** Urritik azarora.
- **Jende aurrean hitz egiteko teknikak (euskaraz).** Urritik abendura.

INFORMAZIO GEHIAGO

Lekua: Villamonte eta Erromoko Kultur Etxeetan.

Ikastaroen prezioa: bakoitza 3 euro.

Argibideak: 94 466 01 30 edo ieizmendi@getxo.net

Emakume Bideak lupeztuta

Antzerki Eskolaren ekimena **bertan behera** gera daiteke, **Aldundiaren laguntza jaitsi** delako



Bonbolinak antzerki taldea

Getxoko Antzerki Eskolak (GAE) gidatzen duen Emakumeen Bideak zirkuitua bertan behera geratzeko arriskuan dago, Bizkaiko Foru Aldundiak ekimen honetarako emandako diru-laguntza aurreko urteetako baino sano txikiagoa izan delako. GAEk 5 urtez jarraian antolatatu izan du Emakumeen Bideak zirkuitua, eta bertan 8 udalerritako emakume-antzerki talde amateurrek parte hartzen dute. Ekimena zati handi batean Aldundiaren eta Emakunderen laguntzei esker gauzatu ahal izan da. Aldundiko Aukera Berdintasunerako alorrak 8.000 euroko laguntza eman zuen iaz; aurten oster, 1.000 euro eman ditu. Arantza Yurre GAEko zuzendariak honela salatu gura izan du: *“laguntza murrizketaren be-*

rriri irailan izan dugu, Emakumeen Bideak zirkuitua hasi baino hilabete lehenago”, erantzuna jakiteko asmotan Aldundira ekainean deitu zuten arren.

Aldundiaren erantzuna

Aldundiak honela argudiatu du laguntza murrizketa: “Aukera Berdintasunerako alorra aurten aldi berri batean sartu da, eta epe honetako lehentasunak beste batzuk dira. Horren berri urtarrean eman genuen, eta GAEk jakinean egon behar zuen. Euren proiekturako laguntzak beste sail batzuetan eskatzen saiatu beharko lirakeke”. Gauzak horrela, GAEk ezin izan du orain beste laguntza eskaerarik egin, baina Arantza Yurrek itxaropen printza bat gordetzen du hala ere. m

HAURRENTZAKO EUSKARAZKO ESKAINTZA AZTERTUKO DU UDALAK

Gazte jendeagaz eta kultur elkarte, kirol talde eta herriko dendakaz egin zuen legez, Getxoko udalak euskararen erabilera aztertuko du Haur Hezkuntza eskaintzen duten zentruetan, haurzaindegietan, eta eskolaz kanpoko umeei begira antolatzen diren ekintzetan, eta azterkuntzatik ateratzen diren ondorioak oinarri hartuta Plan Estrategiko bat osatuko du. Azterkuntza 4 hilabeteko epean amaituta egotea espero dute udal arduradunek, eta 28.000 euroko aurrekontua onartu dute egiteko horretarako.

AUTO-BIDAIETARAKO KIDEA BILATZEKO AUKERA GETXON

Kalean dabilzan autoen kopurua murrizten laguntzeko, auto-bidaia beste norbaitekin batera egiteko aukera bilatzeko bidea ematen du Getxoko udalak udalerriko web orrialdearen bitartez: norberak egunero bere kotxeagaz egiten duen ibilbidea eta ordutegia ipiniko du web orrialdean, eta beste norbaiti ordutegi eta ibilbide bera ondo etorri gero, biek auto bana eraman beharrean, auto bakar batean egin dezakete bidaia, ingurumenaren mesederako.

ARROPA ERABILIAREN BILKETAK GORA EGIN DU

Getxon arropa erabiliak jasotzeko ontzietan bildutakoaren kopurua %20 igo da urteko lehenengo 6 hilabeteetan: hala jakinarazi dute Caritasek eta Rezikletak bultzatzen duten BEROHI kooperatibakoek. Aurten 18 biltze-ontzi daukaguz Getxon, erabilitako arropak edota ehun-gaiak jasotzeko (izan ere, 3 ontzi berri ipini dituzte: San Nikolas plazan, Salbatzailearen elizako atze aldean, eta Algortako Merkatu ondoan). Eroso-erosoak dira ontzi hauek: ezelako trabarik ez eta ordutegirik bete barik erabil ditzakegu guk sobera daukaguna beste batzuen esku jartzeko.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Aralar

alderdiak egoitza zabaldu berri du Algortan

Uribe Kostako lehenengo egoitza zabaldu du Aralar alderdiak Algortan. Bilbokoagaz batera, Aralarrek orain Bizkaian dauzkan egoitza bietako bat da Algortakoa. Ileta kaleko 4. zenbakian dago egoitza berri hau, eta oraindik harremanetarako ordutegirik zehaztu ez badute ere, eguaztenero batzen direla adierazi dute alderdikideek. Arratsaldeko 19:30ean egiten dira batzarrak. Oraingo telefono zenbaki finikorik ez daukatenez, bertara joatea gomendatzen dute; bestela, telefono zenbaki hau erabil daiteke eurekin berba egiteko: 635 75 03 03. m

ESKOLA LAGUNTZA

- Matematika, Fisika...
 - Maila guztiak
- 10 urteko eskarmentua!!!
- T.: 655 739 964

amesti
obrak.proiektuak

Berrikuntzak
Eraikuntzak
Etebizitza
Lokalak
Bulegoak

Basagoiti etorb. 56
48.991 Algorta
Tel. 944 915 298
Fax 944 915 299
amesti@amesiur.com

Garikoitz Fullaondo > Urdaibairen prestatzaile fisikoa

“Ez nuen espero arraunak ni hainbestearino harrapatzea”



Garikoitz Fullaondo algortarra izan da aurten Urdaibairen prestatzaile fisikoa

Garikoitz Fullaondo 31 urteko algortarrak eduki du aurten Urdaibaiko arraunlariak prestatzeko ardura. Gorputz Heziketako irakasle da, eta lehenengoz ibili da arraunean aurten. Futbolari lotuta 17 urte emon ostean aitortu digu: “ez nuen espero arraunak ni hainbestearino harrapatzea”

—Denboraldi oso ona: zertan lagundu duzu?
—Azkenengo urteetan eurek egindako gauzetan birmoldatze batzuk egin ditugu aurten, lan metodologia ezberdin bat erabili dugu. Prestakuntza fisikoaren arabera prestatkuntza bideratu dugu. Orain arte medikuen arabera prestatkuntza jarraitu izan dute, eta aurten prestatzaile fisiko batena: ez dakit, agian hor egon daiteke gakoa.

—Emaizta bikaina lortu duzue, Traineruen Kluben Elkarten liga eskuratu du Urdaibaik.
—Inoiz Urdaibaik eduki duen urterik onena izan da: ligan goialdean ibili gara, eta lehen postuan amaitu dugu, pena izan da Kontxan “ezin izan da” hori jartzea, baina bigarren sailkatzea ere pozteko postua da.

—Kontxan iskanbila handia sortu zen...

—Kontxako lehengo estropada zela eta ez zela egindako adierazpen batzuk, Donostiako antolatzaileen eta ligako arduradunen artean

egon ziren beste hainbat arazo... Esateko gitxi dago. Baina bitxia da, medikuak sartuta dauden mundu honetan, denboraldiaren unerik garrantzitsuenan helden denean talde batzuk zenbat aldatu diren ikustea. Baina, bestalde, dopping dela eta ez dela kontu horiek nahiko arriskutsuak dira. Jakinaren gainean egon behar dute hori salatzeko, ze azken finean, kaltea arraun munduari eta arraunlarietara egiten zaie, nahiko giro txarra sortu da azkenengo asteetan, eta arraunlarietara ez dute hori merezi. Kirolari apartak dira, bere kirola asko maite dute, dirurik apenas irabazten dute, azken urteak eta laupabost talde kenduta.

«la denon artean arraun zaletasuna pizten dugun herrian»

—Arrauna Algortan ez dabil Bermeo aldean bezain irribarretsu...

—Algortako arraunlarietara, zoritxarrez, bat egin behar izan dute Deustuko arraunlarietara trainerua osatzeko. Aurten hemengo bi politto ibili gara Urdaibain (Eneko Van Horenbeke arraunlaria eta biok), Kastron ere beste herriki-de bat dabil... ia denon artean zaletasuna pizten dugun herrian, Algortak arraunlari gehiago lortu eta trainerua bakarrik osatu dezan. m

Antzerkia gogotik

14 lan ikusgai 7 euskaraz



Kanpingags taldeak Ezetz lepoa jarri lana antzeztuko du

XXII. Antzerki Jardunaldiek urriaren 15ean igoko dute oihala, eta asteburu bitan 14 antzerki-lan gozatu ahal izango dituzte getxoarrek, horietatik 7 euskaraz.

Antzeppenak hiru gunetan eskainiko dira: Algortako Geltoki plazan eguerdiko 13:00etan, Areetako Musika Eskolan arratsaldeko 18:00etan, eta Getxo Antzokian 20:00etan. Azken gune horretan lekutuko diren saioak bakarrik izango dira ordaindu beharrekoak, 8,50 euro saio bakoitza: hori bai, erretiratu edota gazte-txartela daukatenentzako txartelak merkeagoak izango dira.

Antzerki Jardunaldien helburua euskal kopainiek egindako lanen berri ematea da, eta horregaz batera, euskal antzerkia sustatzea. Ikusgai egongo diren erderazko lanak hurrengoak dira: *El Decameron* (Getxo Antzokia), *Historias de juguetes* (Areeta),

EUSKARAZKOAK

- **Dekameraia (Ados Teatro).** Getxo Antzokia. Urriak 15, barikua. 20:00.
- **Giriguay (Zirko Ttipia).** Algortako Geltoki plaza. Urriak 16, zapatua. 13:00.
- **Ibaitxu, burdinaren lamia (Bihar).** Areetako Musika Eskola. Urriak 16. 18:00.
- **Kuko, Truko eta Bolenwaider... (Adur)** Algortako Geltoki plaza. Urriak 17. 13:00.
- **Ezetz lepoa jarri! (Kanpingags).** Getxo Antzokia. Urriak 22. 20:00.
- **Adi Adi (Deabru Beltzak).** Areetako Musika Eskola. Urriak 23. 18:00.
- **Klaketa (Hortzuga Teatro).** Algortako Geltoki plaza. Urriak 24. 13:00.

Sonata en un segundo... y pico (Getxo Antzokia), *Circo Kapikua* (Algorta), *Por los pelos* (Getxo Antzokia), *Cenicienta* (Areeta), eta *Paradero desconocido* (Getxo Antzokia). m

HIRU LIBURU BERRI ARGITARATUKO DITU UDALAK LASTER

Getxoko udalak laster hiru liburu plazaratuko dituela iragarri berri du Iñaki Zarragoa alkateak. Bata, Jose Antonio Agirrerren inguruko izango da, eta Elias Amezagak eduki du liburua osatzearen ardura. Bigarren bat, Maite Palizak idatzitakoa Areetako Mesedeetako elizaren historia eta arkitekturaren berezitasunak batzen dituena. Eta hirugarrena, *Madre del Divino Pastor* ikastetxearen (Areeta) 100. urteurrena dela eta egingo dena.

XIV. JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK URRIAREN 16TIK 28RA

Urriaren 16an jarriko dira martxan Basozaleak elkarteak urtero antolatzen dituen Jardunaldi Mikologikoak. Aurtengoa XIV. aldia izango da, eta hemen daukazue jardunaldion hasierako ekitaldi batzuk: perretxikotara joateko txangoa iragarri dute urriaren 16rako, eta biharamunean ikusgai eta dastagai ipiniko dira baturiko perretxikoak San Nikolas plazan egingo den erakusketan. Urriaren 18tik 28ra, berriz, perretxiko erakusketa iraunkorra izango da elkartearen egoitzan (Karidade kalean). Amaitzeko, aipatzekoa da jardunaldiotan lehenengo aldiz hitzaldi bat euskaraz eskainiko dela, urriaren 18an, Algortako Kultur Etxean.

ANTZERKI ESKOLAK ESKAINTZA BERRIA DAKAR

Getxoko Antzerki Eskolak zabaldu egin du ohiko eskaintza aurten, eta arlo profesionalerako eskaintza berria ipiniko du martxan: ikuskizunetako teknikoak prestatu eta trebatzeko ikastaroa hain zuzen. Ikuskizunetako tekniko horiek argiztapen, jantzitegi eta soinuaren arloetan trebatuko dira. Zabalik dago izena emateko epea.

Harremanetarako: 94 430 31 94

cianoplan s.a.
global printers

Villa de Pientzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Kultur Leioak ateak zabaldu ditu

Herrian sakabanaturik zeuden zerbitzuak bilduko ditu, **auditorioa, ikastaroetarako aretoak** eta musikazko prestakuntza-saioetako **lokalak** ere barruan dauzkala

Kultur zentro berria, Kultur Leioa, martxan da. Hiru urteko beharren ostean irailaren 23an ireki zen modu ofizialean, eta eginak daude herritarrak hartzeko azken prestakuntzak. Leioa hiriguneko Aketxe eta Errekalde plazen artean kokaturik, herriaren kultur pizgarri eta leioztarren elkargune izateko sortu da. Leioako alkate Karmelo Sainz de la Mazaren esanetan, "kultur ikuskizunak egongo badira ere, batez ere herritarren parte hartzerako tokia izan nahi du". Hiriko erdigunean kokatzeak, hala ere, ez du esan nahi herriko kultura hirigunera mugatuko denik. Alkatearen esanetan, "honek ez du auzoetako kultura-guneak desagertzea ekarriko, indartzea baizik".



Agintariak Kultur Leioaren zabalte egunean

«Arkitektoen proiektu aurrerakoiak espazio irekiak eta argitasuna bilatzen ditu»

Kultur Leioak herrian zehar barreiatuak zeuden kultur arloak bilduko ditu, zerbitzu integrala eskaintzeko. Horrela, hemendik aurrera Euskara Zerbitzua, KZgunea, Gazte Bulegoa edo liburutegia eraikin berean egongo dira. Gainera aipatzeak dira kultur zentro berrian eraiki diren gune berriak, esaterako, ant-

zerkiaz zein musikaz gozatzeko auditorioa dago azpi-solairuan; zinemarako ere moldatuta dago eta 250 ikusle hartzen ditu. Arte lantegietarako aretoak ere badaude, beharrezko bitartekoekin egokituak, edo musikazko prestakuntza-saioetarako lokalak.

Diseinuaren aldetik, Ramon Sanabria eta Ramon Artigues arkitektoen proiektu aurrerakoiak espazio irekiak eta argitasuna bilatzen ditu, bai eta ondo aurkitu ere. Izan ere, eraikina beirazko hormaz inguratuta

dagoenez gero, ederki asko barneratzen dira argi izpiak areto guztietara, irekitasun eta zabaltasun sententzia handituz.

Zenbaki ikusgarriak eraikin berriak dakartzanak: bost solairu eta 6.000 m² tik gora dauzkan Kultur Leioa altxatzeko 10 milioi eurotik gora behar izan dira. Udaletxeak, diru kopuru horretara heltzeko, Bizkaiko Diputazioaren (300.000 euro) eta Estatuko Sustapen Ministerioaren laguntza (1 milioi euro, oraindik ordaindu barik) jaso du. m

Txopoetako Mikel deunaren festa

Asto proba, berbena, pailazo eta jolasen txanda urriaren 1, 2 eta 3an



Goian jai batzordeko kideak. Behean, Txopoeta auzoa

Urtero legez, Txopoeta auzoko biztanleek Mikel Deuna santua bere lekutik aterako dute behar den moduan omentzeko. Elizan aureskua eta meza eskaini ondoren berriro ere Langileria kaleko etxurre zaharrenean daukan aldarera itzuliko dute datorren urtean prozesioa errepikatu arte. Aurten urriaren hasieran ospatuko dira Txopoetako jaiak auzoko zaindari Mikel Deunaren begiradapean.

Iñigo Bilbao, Gari Korrea, Aritz Korrea eta Ritxar Campos ditugu Jai Ba-

tzordeko kideak: aspalditik batzordean ibiliak dira, eta azkenaldian antolaketarako jenderik ez zegoenez, joan den urtean eurek arduratzea erabaki zuten. Iñigo Bilbaok gogoratzen duenez, urte gogorra izan zen iazkoa, "jaien hasierarako 15 egunen faltan hartu genuen batzordea eta egun gutxian sekulako lana egin genuen".

"Auzotarrek sortuak eta auzotarrentzat", hala aurkeztu dizkigu Txopoetako jaiak Gari Korrea batzordekideak. Aspaldiko tradizioari eusteko, festa herritarra

antolatu nahi dute, euskal giroan eta auzotarrek parte har dezaten. Horregatik, ez dute jende asko erakartzen duen kontzerturik edo ekitaldi ikusgarririk antolatuko, baizik eta auzokideen gozamenerako jarduerak: pailazoak, berbena, asto proba, jolasak, herri bazkaria... Iñigo

«Tradizioari eutsiz, jai herritarrak eta euskal girokoak izango dira»

Bilbaoren esanetan, igandea jaietako egun berezia izaten da, "egun horretan auzotik alde egindakoak amaren etxera etorri ohi dira bazkaltzera, eta horrela, aspaldiko lagunekin egoteko aukera daukagu". m



ERROTULOAK

BEST

**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu**

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparagirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa



Erandiotik Aturrira piraguaz

Carlos Gomezek eta Carlos Ramirezek **Euskal Herriko kostalde osoa zeharkatu** dute oporraldi alternatiboak eta itsasadarrak aisialdirako daukan balioa aldarrikatuz

Irailaren 12an Erandioko kaian sardina jana eta jaia egin ondoren, piraguetan sartu eta pozik abiatu ziren erandioztar biak zeharkaldiari ekiteko asmotan. Lehorretik hiru lagun joango dira euegandik hurbil, autokarabanan, azpiegitura eta beharrezko horniketa ziurtatzeko. Udalaren eta herriko hainbat enpresa eta dendaren laguntza jaso dute bidaia antolatzeko. Komunikabide ugari ere hurbildu zaie zeharkaldiaren gorabeherak ezagutzera emateko.



Goian, Karlos Ramirez eta Karlos Gomez, zeharkaldiari ekin aurretik

Ekimen honekin helburu nagusi bi bete nahi izan dute. Alde batetik, aldarrikatu egin gura izan dute itsasadarrak aukera handiak eskaintzen dituela itsas kirolak egiteko eta aisialdirako gune bihurtzeko. Hori dela eta, ezinbestekotzat jotzen dute itsasadarrean nabigatzeko aukera bermatzea, batez ere orain itsasadarreko enpresa asko Santurtziko Portu Handira joatekotan direnean.

Beste alde batetik, oporraldien gaineko aldarria ere egin nahi dute. Piraguazale bion esanetan "jakina da oporraldiaren bidaia luzeak egitea modan dagoela. Ez da aukera txarra, baina batzuetan urrutira joaten gara, hementxe, herrian bertan daukaguna ezagutu barik. Horrez gain, oraingoan euskal kostaldea ezagutzeko deia egin nahi izan dugu".

"Gaur egungo gazteak albiste, proposamen eta irizpide zurrumbilo baten murgilduta bizi dira. Ez da asko izango, baina guk

behintzat aisialdirako beste aukera bat erakutsi nahi diegu, aisiaz gozatzeko jakin dezaten kirol, abentura eta kulturaren bitartez. Horretarako, herriko ikastetxeetara joango gara geure esperientzia azaltzera".

Carlos Gomezek eta Carlos Ramirezek garrantzitsutzat jotzen dute bestelako ere-

«Erandiok bere-berea duen itsasadarrarekiko lotura aldarrikatzen dugu»

duak izatea. Izan ere eurek oso gogoan daukate 80ko hamarkadan Ritsi eta Katxasek Hegoameriketara egin zuten bizikleta gaineko balentria, milaka kilometroko ibilbidea osatuta. "Guretzat Ritsi eta Katxasek eredu bihurtu ziren, eta beste neurri batean bada ere, geuk ere beste batzuentzat ideia



berriak atera nahi ditugu".

Argazkiak ez ezik bideoak ere egin dituzte eta material hori guztia erabiliko dute euren esperientzia eskolatan azaltzeko.

Hasiera baten hamabi etapatan egitea aurreikusitako bazuten ere, egun batzuetan etapa luzeagoak egin dituzte eta pentsatu baino egun bat lehenago amaitu dute zeharkaldia. m

Garabi zerbitzua lanean hilean 30 bat auto eroaten du



Herrian lanean dabilen garabia

Garabiak 60 zerbitzu egin ditu guztira, uztaile eta abuztua batera hartuta, herriko bide eta kaleetan trafikoa oztopatzen duten autoak eroateko. Gaur egun 60 euro kobratzen ditu udalak ibilgailua garabiz eroateagatik, eta 27 euro garabiarik deitzen zaion bakoitzean, nahiz eta eraman baino lehen jabeak berak kendu txarto aparkatuta zegoen lekutik

Hortaz, udalak 2.500 euro eskuratu ditu udako hilabete bi hauetan garabi zerbitzua-

ren bitartez.

Erandion traba handia egiten duten ibilgailuak baino ez dituzte eroaten. Sarritan zaborbiltzaileek deitzen dute udaltzaingora, kamioia edukiontzietaraino hurbildu ezinagatik. Eta bariku goizetan garabiak ugari edukitzen du lana beti, Astrabuduko kaleko merkaturari dagokion eremua autoz "garbitzen", saltzaileek saltokiak jartzeko lekua eduki dezaten. m

ANTZERKI IKASTAROA LUTXANAN

Keli kultur taldeak antolatuta, urte osoko antzerki ikastaroa hasiko dute urriaren 4an Lutxanako eskolatan. Astean egun bitan izango dira saioak. Egun batean antzerkigintzara hurbiltzea eta bestean 3 hilabeteko monografikoak landuko dituzte. Ez da profesionali begira eskaintzen ikastaroa, antzerkiaren bidez norberaren burua ezagutzeko aukera baliatu nahi dutenei begira baizik. Izena emateko orduan, Lutxana bertakoek edukiko dute lehentasuna, eta gero Erandiokoek eta kanpokoek.

MENDIARI ETA NATURARI BURUZKO ARGAZKI LEHIAKETA

Bigarren urtez jarraian, argazki lehiaketa antolatu du Atxazpe mendi taldeak. Elkarteko kideak eta Erandioko herritarrek parte hartu ahal izango dute. Mendiari eta naturari buruzko argazkiak aurkezteko epea zabalik dago urriaren 15era arte. Argazkiak urriaren 21etik 24ra erakutsiko dituzte Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxeko erakusketa aretoan, eta sariak urriaren 22an banatuko dira.



Euskara ikastaroak 2004/2005	
Cursos de euskera 2004/2005	
IRAILA - EKAINA - SEPTIEMBRE - JUNIO	
<ul style="list-style-type: none"> * Euskalduntze eta alfabetatze-maila guztiak * Ikastaro bereziak: EGA, hizkuntza eskakizunak mailen egiaztagarriak... * Ordu-tegiak aukeran * Bekak eta diru-laguntzak * Kualifikazio handiko irakasleak 	<ul style="list-style-type: none"> * Todos los niveles de euskaldunización y alfabetización * Cursos especiales: EGA, lingüísticos, acreditación niveles... * Flexibilidad de horarios * Disponemos de becas y ayudas * Profesorado altamente cualificado
MATRIKULA?EPEA ZABALIK	PLAZO DE?MATRICULA ABIERTO
*CLASES en Astrabudua (IES Astrabudua) y en Erandio (Bekoa Ikastetxea)	
<p>ERANDIOKO?UDAL?EUSKALTEG?</p> <p>HABEren dirulaguntzaz Bekoa Ikastetxea Desanexión kalea, 4 behe Tel.: 94 467 60 75 erandio.eusk@euskalnet.net / www.erandioko-udala.net</p>	

Auzoetatik erdigunera dabil **Sopel-bus**

Auzunerik **urrunenak eta herrigunea** lotzen ditu autobus zerbitzu berriak

Sopelanako udalak ipini berri du martxan udalerriko auzunerik baztertuenak herriko erdiguneagaz lotzen dituen autobus zerbitzua. Sopel-bus izenagaz jaio den garraio zerbitzu berria hasi baino egin ez denez gero, baliteke betebeharreko ordutegi eta ibilbideek alkaketa batzuk edukitzea oraindik. Aldaketok erabiltzaileen iradokizunei erantzuteko egingo lirarteke, eta zuk zeuk, irakurle, halako irado-

«Bidaia bakoitzak 50 zentimo balio ditu, baina 12 bidaia txartel merkeagoak ere badira»

kizunen bat badaukazu, helbide elektronikoa honen bitartez bidali dezakezu: sopelanagurea@sopelana.net, edo udaletxera bertara gutun bat bidalita.

Dena dela, Sopel-bus zerbitzuak oraingoz betetzen duen ibilbidea hau da: Urbasa kafetegia-Camping-Atxabiribil-Urbasa kafetegia- Nagusien Etxea- Larrabasterrako



Argazkian, Sopelanako udalak martxan ipini duen autobus zerbitzua

metro geltokia-Arrietara-Larrabasterrako metro geltokia-Nagusien-Etxea-Urbasa Kafetegia. Eta ordutegia ondorengo da: 10:15, 10:54, 11:33, 12:12, 12:51, 13:30, 17:15, 18:00, 18:45 eta 19:30. Bestalde,

astelehenetik barikura Atxabiribiletik Larrabasterrako metro geltokira doan zerbitzua ere badago, ordu bakarrean bada ere: 06:50ean. Bidaia bakoitzak 50 zentimo balio du, baina bonuak ere salgai daude. m

Barinatxeko aparkalekua eta Arrietarako pasabidea konpontze bidean dira auziak



Barinatxe hondartzako aparkalekuan sartzeko ipini duten hesia

Arrietara hondartzako ingurumena ahalik eta hobetoen babesteko, bertara autoz igarotzeko debekuari bere horretan eusteko nahia daukala azaldu du Sopelanako udalak. Horren albotik, Barinatxeko aparkalekua ordaindu beharrekoa izan dadila ere erabakitzen dabilzala jakinarazi du.

Hala ere, Informazio, Komunikazio eta Turismo zinegotzi Ricardo Ibarak azaldu digunez: "horrelako neurriak hartu baino

lehen, kaltetu danakaz berba egingo dugu: horretan gabiltza, auzotar eta dendariak batzartzen, eta euren iritziak eta aburuak entzun ostean, adostuko ditugu hartu beharreko neurriak". Gauzak horrela, udalak inguru horiek babesteko hartuko dituen neurri berriak hemendik gutxira plazaratuko dituela adierazi du Ibarak, kaltetu denakaz bildu ostean eta neurririk egokienak adostu ondoren. m

Instalazio elektrikoak
Electro LAIA

Larrialdi Zerbitzua 24 orduz

670 415 732

LARRABASTERRA

Konpromisorik gabeko aurrekontuak / komunitate, lantegien...
mantenimendua / etxebizitza, lonja, pabiloien erreformak /
bonba hidraulikoak / telefonia, ahots eta datuen sareak



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

ETXEKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON -

Lacofris S.L. SERVICIO

Y MARKA GUZTIAK
Y 24 ORDUTAN ERANTZUNA
Y 3 HILABETEKO GARANTIA
Y 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

OSAEIDE? HORTZ? KLINTIKA
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behean esan ALGORTA 94 94 430 76



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

LAIKAK Taberna

Zatoz gure tabernara!!

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

**NAGUSIENTZAKO
EGOITZA BERRIA
EDUKIKO DU BERANGOK
2005EAN**

Berangoko udalak datorren urterako aurreikusten du Nagusien Etxe berria zabaltzea. Lehen anbulatorioa zen eraikina egokituko dute, eta bertan kokatuko dute gure aitite-amamen etxea. Hainbat zerbitzu eskainiko dira egoitza berrian berangoztar nagusien beharrianak asetzeko: besteak beste, gimnasio bat, ileapandegia, podologia zerbitzua, ordenagailu gela... 65 urtetik gorako 1.000 berangoztar baino gehiagoren zerbitzura ipiniko den Nagusien-Etxea 748.000 euroko aurrekontuagaz egingo dela iragarri du udalak.

Eraikin honetan egoitza da



**IKASTARO BERRIAK
IKASTURTE BERRIRAKO**

Martxan dagoz Berangoko Kultur Etxeak ikasturte berriari begira urtero eskaintzen dituen ikastaroak. Besteak beste, aipatzekoak dira urte biko iraupena edukiko duen aisialdiko begirale eskaldunen ikastaroa, eta familiaren esparuan euskara sendotzeko asmoagaz 6. urtez jarraian eskaintzen den gurasoentzako euskara ikastaroa. Bestalde, martxan daude beste ikastaro eta lantegi batzuk ere: helduentzako margolaritza, pandero ikastaroa, saloi-dantzak, lorezaintza, tai-chi, musika-hastapenak, zur-lanketa...

Harremanetarako: 94 668 11 76

Nazioarteko Milia

Korrikalari onenetarikoak batuko dira Berangon




Irudian iazko goi-mailako korrikalariak

Hilaren 2an hitzordua daukate Berangon nazioarteko korrikalari onenek, Berango Atletismo taldeak eta udalak antolatzen duten XVII. Berangoko Nazioarteko Milia ospatuko da-eta urriaren 2an. Gobelalde kalean izango da lasteketa: izan ere kale horren joan-etorriak milia bateko distantzia dauka, hau da, 1.609 metro. Aurreko ekitaldietako partehartzaileen artean aipagarri dira Ate-naseko Joku Olinpikoetan brontzezko domina irabazi duen Rui Silva korrikalaria, Reyes Estevez zaildua eta munduko txapeldun Carla Sacramento. Gauzak horrela, Berangoko Atletismo taldeko

presidente Josu Hernandezek esan digun legez: *“maila horretako korrikalariak telebistan bakarrik ikusteko aukera edukitzen dugu, eta horiek hurbilago ikusi ahal izateko, eta haurrek euren izarrak gertutik ikus ditzaten, aukera itzela da Milia”*.

Herritarrek eta elitekoak batera Berangoko Milian herritar, federatu eta profesionalak parte hartzen dute. Korrika hasten lehenak haurrak izango dira (16:30); gero kadete, gazte, junior eta beteranoen txanda izango da. Elite mailako emakumeek 18:50ean ekingo diote lasterketari, eta gizonezkoek 19:10ean. m

Mikel Estebanez > Barinatxeko lasterketa nudistako irabazlea
“Naturismoa jokabide arrunta dela deritzot, baina jendea oso lotsatia da”



Argazkian, Mikel Estebanez gazte barrikarra

Euskal Naturista Elkarteak hartu zuen Barinatxeko lasterketa nudista antolatzeko ardura iaz, baina korrikaldi hau Patxi Ros-ek prestatu zuen lehenengo aldiz, 1998an. Iaz partaide hutsa izan zen batek irabazi du lasterketa: Mikel Estebanez barrikarrak.

69 zenbakia zeraman margoztuta iztarran 17 urteko barrikarrak, eta horrek indar berezirik eman ete zion ezin zehaztu badaiteke ere, egoera fisiko onean egotea lagungarri izan zitzaion, *“kirol egitea gogoko dut, iaz atletismoa egiten nuen, udan piraguismoa egiten ibili naiz, eta naturismoa jokabide arrunta dela uste dut, horregatik hartu dut parte lasterketa nudista honetan”*. Lasterketa gogorra dela aitortu du Estebanezek, *“5 Km-ko korrikaldia, haren gaian, biluzik... eta gainera, aurten ibilbidearen zati bat urak hartuta egon da;*

iaz oztopo-lasterketa egin nuen eta baliteke horrek urak eta harriak lasterkideek baino errazago gainditzen lagundu izana”.

Kirola eta aldarrikapena Estebanezen ustean, korrikalariak naturismoa aldarrikatzeagatik parte hartzen dute, eta bere iritziz: *“aldarrikapena kirola eginez egiten bada, askoz hobeto”*. Horren albotik, jendea biluzik parte hartzeaz lotsatzen dela deritzo, *“naturismoa gauza normala da, eta ez dut ulertzen jendea zergatik lotsatzen den bere gorputzaz”*. Begiek lasterketakide erakargarrien gorputzetara ihes egiten duten galdetuta, ezetz dio, baina emakume gazte gutxi zeudela konturatu ei zen. 19:16 minututan egin zuen lasterketa barrikarrak, eta muga hori jaisteko asmoa dauka datorren urtean. m

**KURKUDI
LIBURUENDAKO**
**Euskarazko
irakurgai**
 Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
 T: 944 913 402

TXIBERRI
 edantokia
 frontoi partikularra
 Aita Gotzon 4, URDULIZ
 T: 94 676 07 15

BASARTENA

URDULIZ
 Telefono: 946 761 128

**Ajuria
taberna**
 Andrés Cortina 2
ALGORTA

EUSKARAREN PIPER ETA GATZA
 Hasiberrientzako menua, enpresentzako menu berezia, eta zeure neurmiko ikastaroak: euskararen erabilera bultzatzeko, hizkurtz eskakizunak prestatzeko, EGA ateratzeko... Euskara ikasteko hamaika aukera aekn
 Udalek subentzionatuta

 www.aeknet.net
 Unbe Kostako aek: Algorta Tel: 94 4304734 • Leioa Tel: 94 4646063 • Sopela Tel: 94 6764876 • Plentzia/Goriz Tel: 94 6773607 902 36 22 94

GORLIZ

Perretxiko saltsa urriko bigarren domekan



Cortinarius sanguineus

IKASTAROAK LEMOIZEN

Lemoizko Kultur-Etxeak plazaratu berri du hiruhileko honetan eskainiko dituen ikastaroen zerrenda. Urriaren hasi eta abendura arte hurrengo ikastaroak eskainiko dira: euskara, antzerkia, euskal dantza, masajea, marrazketa, internet (zenbait ikastaro KZgunean), eskulanak, pilota, yoga ... Ordaindu beharreko ikastarotik (54 eurokoak dira gehienak, baina dohakoak ere badira) %50ko beherapena jaso dezakete 15 urtetik beherakoek eta 65 urtetik gorakoek.

Harremanetarako: 94 687 90 37

Heldu da udazkena, eta beragaz batera dakar basoetako "uzta". Batzuen begietan, udagoiena perretxikoak batzeko garaia da gehiago arbolak biluzten dituen aroa baino. Era horretakoak dira Plentziako Perretxiko elkartekoak, eta hilaren 10ean Perretxiko Jardunaldia antolatu dute Gorlizen, Iberre auzoan: Gorlizko III. Perretxiko Jardunaldia, goizeko 08:00etatik arrastiko 14:00etara. Bitarte horretan mota askotako perretxiko, ziza eta ondoak egongo dira ikusgai (iaz

300dik gora perretxiko mota ikusi ahal izan ziren), eta horietako batzuk dastatzeko aukera ere edukiko du bertaraten denak. Haurrentzako lehiaketa ere prestatu dute: perretxiko bakoitzaren izena igartzen abile-na izango da irabazle.

Jardunaldiak Uribe Kostan

Gorlizko Jardunaldiak izango dira Uribe Kosta osoan egingo diren perretxikoen inguruko saioretan lehenengoak. Getxon urriaren 17an izango dira, Sopelan hilaren 24an (egiaztatu barik), Leioan urriko azken domekan, Plentzian azaroaren 7an, eta Berangon azaroaren 14an.

Uribe Kostan ere perretxiko asko batu daitezkeela aitortu digu Plentziako Perretxiko elkarteko zuzendaritzako kideetako batek, baina gehiagorik ez: bilkatarako gune oparoak non kokatzen diren galdetzeak erantzun antzua dauka. Dena dela, aurrengo hau perretxikotarako urte ona izango dela uste dute, euria nahikoa egin du-eta. Uzta ona batzea espero dute, orain dela urte bikoia-lakoa bezain ona. Hala izan dadila!

Urriak 1-18

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Marta Camiñaren margolanak.** Goñi Portal kulturala. Urriaren 1etik 15era.

► **Erik Marlooren margolanak.** Goñi Portal kulturala. Urriaren 16tik 30era.

GORLIZ

► **Javier Lombararen arte erakusketa.** Erakustaretoa (Eloisa Artaza kalean). Urriaren 14tik 24ra.

GETXO

► **Julen Altuna-ren akrilikoaren erakusketa.** Algortako Kultur Etxean. Urriaren 2ra arte.

► **Miren Zabala Sertucharen olioaren erakusketa.** Algortako Kultur Etxean. Urriaren 4tik 16ra.

► **Nestor Basterretxearen eskulturak eta Amable Arias eta Juan Mieg-en margoak.** Erromoko Kultur Etxean. Urriaren 6tik 30era.

► **Edergintza taldearen olioaren erakusketa.** Algortako Kultur Etxean. Urriaren 18tik 30era.

ZINEMA

GETXO

► **Good Bye, Lenin.** Zine-Klubaren 04-05 denboraldiaren hasiera. Getxo Antzokian urriaren 6an, eguaztena. Areetako Gran Cineman urriaren 7an, eguena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

► **Vias Cruzadas (The station agent).** Zine-Kluba. Getxo Antzokian urriaren 13an, eguaztena. Areetako Gran Cineman urriaren 14an, eguena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.


► **Las invasiones Barbaras.** Zine-Kluba. Getxo Antzokian urriaren 20an, eguaztena. Areetako Gran Cineman urriaren 21ean, eguena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

PLENTZIA

► **Cold Mountain.** Helduentzako zinema. Goñi Portal. Urriak 1, barikua. 22:00.

► **Big Fish.** Helduentzako zinema. Goñi Portal. Urriak 8, barikua. 22:00.

► **Sylvia.** Helduentzako zinema. Goñi Portal. Urriaren 15, barikua.



Ramon Barea da antzerki lan honen zuzendaria

► Antzerkia

Agatha Christie-ren La Ratonera Getxon

Txalo antzerki taldeak *La Ratonera* lana oholtzaratuko du Getxo Antzokian urriko lehenengo zapatuan. Agatha Christie nobelagile ingelesaren antzerki lanik famatuena da *La Ratonera*, eta antzerki munduan harribitxi bat. Azpikoz eta intrigaz beteriko detektibe antzerki lan hau 1952tik gaur arte urtero antzezten dute Londresen. Getxora, diogun legez, Txalo taldearen eskutik dator, Ramon Barea da muntzaitzaile eta ondoko hauek aktore: Jaime Blanch, Cristina Rivera, Pablo Calvo, Fermin Sanles, Jose Luis Mendiara, Klara Badiola eta Ane Gabarain. Sartzea 15 euroan ordainduko da.

• **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** Urriak 2, zapatua • **Ordua:** 20:00

► Servicio de compañía.

Helduentzako zinema. Goñi Portal. Urriak 22, barikua. 22:00.

► La puta y la ballena.

Helduentzako zinema. Goñi Portal. Urriak 29, barikua. 22:00.

ANTZERKIA

GETXO

► **La ratonera.** Txalo antzerki taldearen eskutik. Getxo Antzokia. Urriak 2, zapatua. 20:00etan. Sarrera: 15 euro.

► **Dekamerioa.** Ados Teatrotan eskutik (euskaraz). XXII. Antzerki Jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Urriaren 15ean, barikua. 20:00etan. Sarrera: 8,5 / 6,5 euro.

► **Zirko Ttipia.** Giriguay taldearen eskutik (euskaraz). XXII. Antzerki Jardunaldien barruan. Algortako Geltoki plazan. Urriaren 16an, zapatua. 13:00. Doan.

eskutik (euskaraz). XXII. Antzerki Jardunaldien barruan. Algortako Geltoki plaza. Urriak 17, domeka. 13:00. Doan.

► **Historias de juguetes.** Teatro Paraisoren eskutik (euskaraz). Antzerki Jardunaldien barruan. Areetako Andres Isasi Musika Eskola. Urriak 17an, domeka. 18:00. Doan.

► **Sonata en un segundo... y pico.** T(arte)an taldearen eskutik (erdaraz). Antzerki Jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Urriak 17, domeka. 20:00. Sarrera: 8,5 / 6,5 euro.

BESTEAK

GETXO

► **II. Bihotza Gazte.** Adineko bertsolarien saioa. ALBE eta Euskara Zerbitzuaren eskutik. Lekua eta ordua jaiotako gazteak behar ditu, hau da, 15 urtetik beherako jendea. Izena emateko epea zabalik dago. Harremanetarako: 652 730 113.

► Waterpolo jokalariek behar dira.

Fadurako waterpolo taldeak, lehenengo mailari eusteko, 1989 ostean jaiotako gazteak behar ditu, hau da, 15 urtetik beherako jendea. Izena emateko epea zabalik dago. Harremanetarako: 652 730 113.

SOPELANA

► **Pilota partidak.** Lasa III-Xala / Barrioala-?. Frontoian. Urriak 10, domeka. 17:00.

URIBE KOSTA

► **Perretxiko jardunaldiak:** Gorlizen urriaren 10ean. Getxon urriaren 17tik 28ra hainbat ekitaldi egingo dira. Sopelanan urriaren 24an (ez dago ziurtatuta). Leioan urriko azken domekan, hilak 31. Plentzian azaroko lehenengo domekan. Eta Berangon azaroaren 14an.

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

QVASA

20^o ANIBILAKO O
URTI-DORREN Y

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

hamaika bide

zenbat gara aukera

San Vicente 2
4. solairua
48001
94 423 75 91

1 Kale Antzokia Bilho
2 Kale Antzokia Ondarrea
3 Ondarreako Antzokiaren
4 Algora konparisa
5 Zaparraketa Gaztegunia
6 Elgetan Urruginea
7 Elgetan zerbiztu,
kastaro eta talerak
8 Belduako abes
9 Bilbo Hiria iraila 96.0 Fm
10 Zenbat Gara aldizkaria
Gara argitalaritza

[albuma]



Golfo Norte (Barrika)



The image (Berango)



La carolina (Barrika)



Milagros (Barrika)

Martxa bilguneak

Aspaldiko joera da. Asteburuko parrandak hiriguneetan egin barik errepide bazterretan han-hemenka barreatutako tabernetara, pubetara eta diskoteketara jotzen du gazte askok. Gure eskualdea boladan dago eta asteakabuetan lepo eginda egoten den makina bat "martxa" bilgune dauka. Leku hauetako batzuk erretratatu eta zuenganatu gura izan ditugu album honetan.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Indian (Sopelana)



La triangu (Sopelana)



Sunset (Sopelana)



Nix (Gorliz)



Peñón (Sopelana)



Purgatorio (Berango)



Prentsa argazkilariak

Oskar Martinez

Hauxe duzue Oskar Martinez prentsa argazkilaria algortarrak helarazi digun lana. Barinatxe hondartzan urtero egiten den lasterketa naturista iruditan jasotzera joan ziren komunikabideetako argazkilariak erretratatu zituen Oskarrek.

[berbetan]

Andoni Ortuzar Portugaleten jaio zen orain dela 42 urte, eta betidanik Abanto-Zierbenako San Fuentes auzoan bizi izan da. Kazetaritza ikasketak egin zituen Leioan, eta laster hasi zen lanean, Deia egunkarian batez ere. Handik Eusko Jaurlaritzara egin zuen salto; Kanpo Harremanetarako Idazkari legez jardun zuen bertan, harik eta 1999an Gasteizko Legebiltzarrak EITBko zuzendari nagusi aukeratu zuen arte. Ordudanik, euskal irrati-telebista publikoko lema zuzentzen du. Batzuetan, itsaso zakar eta guztiz, ETAre bideoa eman zuten hartan beza-la. Ematen du, ordea, urak bareago dabilzala orain, eta EITBk lasaiago begiratzen diola etorkizunari.

Andoni Ortuzar

Galantasunez

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Berbetan da atal honen izena, baina ezin esan Andoni Ortuzarregaz berbetan egon garenik. Batetik, Interneten aroan bizi gara (EiTBk berak ere digitalizazioa indartu gura duela diosku Ortuzarrek); bestetik, gizon lanpetua dugu EiTBko zuzendaria. Honenbestez, posta elektronikoz gauzatu da elkarrizketa hau. Eta horrexegatik, hain zuzen, ez da suertatu guk gura bezain mamitsua. Aurrez aurreko harremanak zapuzteko bidean diren teknologia berrien abantailaketa bat (batzuentzat behintzat) galdera deserosoenei izkin egiteko aukera ematea da, izan ere.

Zelangura, Andoni Ortuzarri egindako elkarrizketa batek beti edukiko du bere balioa. Honek ere bai, noski.

—ETB galanta dator! Programazioaren zer alderdi indartuko duzue denboraldi hasi berrian?

—Lehenik eta behin, albistegiak: telebistan (ETB-1eko bereziak eta elkarrizketa saio berri bat Maddalen Iriarterekin; “La

Pelota Vasca” eta “25 urte Estatutuarekin”; *Políticamente Incorrecto*), irradian (*Faktoria* eta *Graffiti*) eta batez ere Interneten (eitb24.com). Eta horrekin batera, entretenimendua (*Sorginen Laratza*, *Basetxea*, *Ero eta Bero...*; *Vaya Semañita*, *El Conquistador del fin del mundo...*) eta zinea (*Harry Potter*, *Bridget Jones*, *Hannibal...*).

“ETB-1 da guretzat katerik garrantzitsuena, eta inbertsio gehien jasotzen duena”

—Zer erronkak dauzka EiTBk epe motzean?

—Digitalizazioa da bat: alde batetik eitb24.com zabaltzea; bestetik, egoitza berrien DIGIBat proiektua biribiltzea. Daukagun beste helburu bat albistegietan buru izatea da, euskarri guztietan, eta 4-12 urte bitartekoen artean ETB-1 lehen telebista izatea.

—eitb24.com aurkeztu berri duzue. Zein helburu dauka?


—eitb24.com, ingelesez, euskaraz eta

gaztelaniaz Interneten egun osoan informazioa ematen duen katea, hiru helbururekin jaio da: informazio etengabea eskaintzea eta mundu osora zabaltzea; Euskal Herriaren ezagutza eta irudia osatzea eta hobetzea eta munduko euskal komunitatea indartzea.

—ETB-1ek %6ko audientzia dauka batez beste, oker ez banabil. Euskaldunok

gutxiengo izanda ere, euskaldun portzentajea baino gutxiago da hori. Zergatik? Aztertu duzue, ontzat jotzen duzue, hobetzeko modukoa dela uste duzue?

—ETB-1ek %6 dauka, hala da, eta euskaldunak %28 baino ez gara. TVE, Tele5 edo Antena3 %20ren inguruan daude, erdaldunen kopurua %100 izanda. ETB-1, beraz, maila horretan dago. Pentsa ezazu egunero ia 300.000 pertsonak ikusten dutela telebista euskaraz.



Tira-birak ikus-entzunezko sektoreagaz

Orain dela gutxi, Euskal Ekoizleen Elkarteak salatu egin du ETBk ez diola behar adinako dirua ematen euskal zine ekoizpenari, legeak hala eskatu arren. Ezin izan dugu gai honen gainean Andoni Ortuzarregaz berbarik egin, berandu ailegatu zaigulako informazioa, baina horren ordez ETBk salaketari emandako erantzuna lortu dugu. Euskal telebista publikoak dioenez, "Euskal Ekoizleen Elkarteak zabalduko prentsa oharra guztiz bidegabekoa da. Euskadiko ikus-entzunezkoen Arloaren Liburu Zurian hartutako konpromiso guztiak bete ditugu. Are gehiago, 4 milioi inbertitu ditugu, Liburuan adostutakoa baino gehiago, eta euskal zine produkzioaren historian inbertitutako diru kopururik handiena. Agerian da, eta frogatu daiteke, Liburu Zuria onartu zenetik ETBk inoiz baino laguntza handiagoa eman diola ikus-entzunezko ekoizpenari. Epe horretan, hain zuzen, inoizko film gehien egin da Euskadin".

—Aldiz, euskarazko irratia osasuntsuago dabilela ematen du...

—Bai Euskadi Irratiak, eta baita Euskadi Gazteak ere, jendea erakartzea lortu dute, oso programazio ona daukatelako, eta urteetako esperientzia eta komunikazioa entzuleekin.

—Aurrekoagaz lotuta, ez al da ETB-2ko programazioa asko indartu, eta ETB-1

“Telebista autonomikoon arma, estatu mailakoan aurrean, elkarlana da”

apur bat “ahaztuago” utzi?

—ETB-1 da guretzat katerik garrantzitsuen, ahalegin eta inbertsio handiena jasotzen duena. Gogoan izan *Betizu* edo *Kirolak* zuzenean, edo baita programak ere: *Goenkale* bezalako telesailik ez dago ETB-2n, adibidez, eta gustatuko litzaiguke.

—Bide batez, ETB-1eri kirol gehiegi ematea leporatzen zaio...

—Bada, kirola ETB-1en programazioaren %12 baino ez da, beste edozein orotariko katetan bezala. Baina gertatzen da kirola askoz gehiago ikusten dela.

—Euskaraz diharduten komunikabide guztiak daukate hizkuntz ereduaren ara-

“ETAren bideoaren auzia ezerezean gelditu da, zentzugabekeria zelako”

zoa, eta zuek ez zarete salbuespena izango, pentsatzen dut. Nola hurbildu dakieke telebistan eta irratan egiten den euskara ETB-1 ulertzeko zailtasunak dauzkaten milaka euskaldunzaharrei?

—Euskara ulertzeko zailtasuna gainditzeko bide bakarra dago: Euskadi Irratia eta ETB-1 egunero entzun eta ikusi. Neure esperientziagatik esaten dizut!

—Komunikabide publiko gehienei, gure inguruan behintzat, dagokion gobernuaren alde egitea leporatzen zaie. Defenda ezazu zeurea...

—Beste komunikabide batzuetarako hainbat aldiz proposatu eta eskatu izan dena, hemen egin egiten da: EiTbren zuzendari nagusia Parlamentuak aukeratzen du, eta ez Gobernuak; Administrazio Kontseiluan gizarte-ordezkariek daude; eta Programa Kontratu bat daukagu, gure konpromiso publikoak jasotzen dituen. Hala egitea proposatzen dute komunikabide publiko guztietarako, baina egin, EiTbN bakarrik egiten da.

—Ze arma daukazue telebista autonomikoen estatu mailakoei aurre egiteko?

—Elkarlana, zalantzarik gabe. Ondo funtzionatzen du kirola eta zinea erostek, edota albisteak trukatzek, baina erronka programak elkarrekin egitea da. Zaila da, baina zaila bezain ezinbestekoa.

—ETBn ETAk egindako bideo bat emateagatik epaitegira deklaratzera deitu zintuzten. Zertan da auzi hori gaur egun?

—Adibide ona da hori PPK, boterean zegoenean, Gobernutik zer nolako eraso egin zigun ikusteko. Auzia ezerezean gelditu da, zentzugabekeria handia izan zelako. m



DIDAK
hamilton
IDIOMAS

San Nikolas
IKASTOLA

SATURDAY PLAY-SCHOOL

3-9 urteko euskaldunentzako INGELES ikastaroa

Urritik Ekainera, larunbatetan

• San Nikolas Ikastolan (Algorta) • Talde txikiak

• www.didakhamilton.com

Informazioa eta izena emateko:

Didak-Hamilton Idiomak / Dr. Landa, 6. 48600 Sopela. Tel: 94 676 30 12
didakhamilton@euskalnet.net

NOIZ:
Urritik Maiatzera
2004-2005

IZEN EMATEKO EPEA:
Irailaren 24rarte

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:
Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
Karitate kalea 1, 10 bulegoa
48991 Getxo
94 491 43 57
bizarralepoan@euskalnet.net

BALDINTZAK:
Gurtxienez 18 urte izan behar duzue Abenduaren 31an
Praktikak Getxoko taldeetan
Getxoko Talderen bateko kidea izanez gero Udal laguntza
(NANren fotokopia, 2 argazki eta abonarea-144€ BBK 2095 0019 50 9102257479)



**BEGIRALE
IKASTAROAK
2004**



Erdi aroko azoka Getxon

Gaixotasun guztietarako sendabelarrak, intsentsu usaina, lastoz estalitako zoruak, sagardogileak, buztinezko txontxongiloak, kebab-aren zaporeak, komedianteak, malabaristak, bufoiak... denak egin zuen bat Algortako kaleak Erdi Aroko bihur zitezzen. 70 etxolatik gora egon ziren Tellagorri, Tangora, Getxo Antzokia eta San Nikolas plazen artean banatuta. Hiru auzune ezberdin zitezkeen: alde kristaua, ingurune sefardia (artisans judutarren gunea) eta gunea arabiarra. Eta 60.000 bisitari baino gehiago izan ziren horren guztiaren lekuko.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



zineeskola

Oskar Fernández

Artea eta ikuskizuna baino gehiago

Zinema XIX. mendearen amaieran sortutako asmakizun garrantzitsua da. Hasieran ikuskizun bat baino ez zen, baina berehala arte bilakatu zen eta baita industria boteretsua ere. Garai hartako zientzia-gizonek, zuzendariek eta ekoizleek ezin zuten susmatu ere zinematik edukiko zuen garrantzi handia. Gaur egun gure bizitza filmez inguratuta garatzen da. Beharbada honetaz ez gara jabetuko, baina gure burmuinak filmen irudiz beterik daude. Eta jakina, honek eragina dauka gugan. Filmak zinema aretoetan ez ezik, etxeetan, ospitaleetan, unibertsitateetan, ikastetxeetan ere badaude. Zinemak gizakiengan duen hain eragin nabarmen eta zuzena aprobetxatuz, hainbat gaixotasun mental sendatzeko edo arintzeko erabiltzen da aspalditik terapietan. Psikologoek, psikoterapeutek eta psikiatreek hainbat arazori egiten diote aurre zinematik ekoizten dituen filmez baliaturik. Lan egiteko eredu hau ikusi ahal izateko ez gara gure eremutik atera behar. Irakaskuntzan, adibidez, filmak jarrerak lantzeko, drogamenpetasunari aurre egiteko, hezikidetzat bultzatzeko erabiltzen dira, bestek beste. Britainia Handian urrunago joan dira: St Thomas Ospitalean bertan gaixozentzako zinema aretoa zabaldu dute. Gaixoak oheetan, gurgildun aulkietan edo jesarleku arruntetan egon daitezke. Aipatu dugun moduan, zenbait psikologok eta psikiatreek gaur egun zinema lan tresna moduan erabiltzen dute: zinematerapia sortu zen horrela. Nork ez du inoiz film bat ikusi ondoren poztasun handia edo beste hainbat eta hainbat sentimendu baikor eta alai bere barrutik hedatzen sentitu? Nork ez du masaila malko batez busti istorio hunkigarri baten aurrean? Edo nork ez du noizbait pertsonaia batekin lotura afektibo handia eta sakona sentitu? Kontrako gauzak ere gerta daitezke, jakina. 4

Zine-Klubak aurkezten du...


Good Bye, Lenin! filmagaz emango zaio hasiera denboraldi berriari **urriaren 6an**

Iaz Europako film onenaren saria lortu zuen *Good Bye, Lenin!* filmaren emanaldigaz ekingo dio Zine-Klubak 2004-05 denboraldiari, urriaren 6an Getxo Antzokian (Algorta), eta biharamunean Gran Cineman (Areeta). Berrikuntza nabarmen bidakartza aurtzen Zine-Klubak: bata, ohi baino hilabete bat lehenago emango diola hasiera zinema eskaintzari, eta bestea, pelikulen emanaldia ohi baino ordu erdi goizago hasiko dela. Zine-Klubeko kolaboratzailea den Manu Gomezek azaldu digun legez, filmen emanaldia ordu erdi aurrerat-

«Filmeen emanaldia ordu erdi lehenago hasiko da aurtzen, 19:30ean»

zearen arrazoiak hurrengoak da: *“filmen osteko eztabaidei tarte handiagoa eskaintzea, filmea 20:00etan hasten bada beranduegi egiten zitzaien eztabaidarako, eta jendeak alde egiten zuen hurrengo eguna lan-eguna delako”*.

Denboraldi hasiera indartsua iragarri dute arduradunek; hala ere, Gomezek dioen legez: *“filme onak dira, baina sarritan ikusle arrunta erakartzen ez dutenak”*. Filme horien artean aipatzekoak dira Gomez-en ustez: iaz Zinemaldian eskainitako *Vias Cruzadas (The station agent)*, eta *Las invasiones barbaras*, filme atzerritar onenaren



Good Bye, Lenin! filmaren kartel-iragarlea

aurtengo Oscarra eskuratu zuena. Horren albotik, gazteak Zine-Klubeko pantailara erakartzeko asmoagaz, *El amanecer de los muertos* pelikula eskainiko dute. Eta horrela, filmez film, eztabaidaz eztabaida, maiatzera arte. m

Jakingarri

- Non: Getxo Antzokia (Algorta) eta Gran Cinema (Areeta)
- Noiz: eguazten eta eguenetan
- Ordua: 19:30ean
- Sarrera: 2,60 euro

Ez galdu > “Mar adentro”



Alejandro Amenábar Madrileko zuzendari gazteak zuzendu du film bikain eta interesgarri hau. Pelikula hunkigarri honetan oso ondo uztartutik daude itxura eta edukia, eta beraz, oso binomio erakargarria lortu du. Bere laugarren lana du hau. Aurrekoak: “Tesis”, “Abre los ojos” eta “Los otros”. Amenábarrek garatzen duen istorio honetan aktore guztiek oso ondo betetzen dute euren lana, baina guztien gaineratik —ez da harritzekoa, bera da eta protagonista— Javier Bardem nabarmentzen da. Pelikulak Ramón Sampedroren bizitza dauka oinarri, baina lan eder hau, zalantzarik gabe, eutanasiatik baino askoz urrunago doa eta bakoitzak berari dagozkion gauzez erabakitzeke eduki beharko lukeen ahalmenez egiten du hausnarketa. Filma oso ondo orekatuta dago. Protagonistak dituen ametsak edo nahiak bikain irudikatuta daude. Ikusi behar den filma da.



Reggae inguruko estiloak osatutako diskoa urriaren 22an aurkeztuko du Dubbyk Kafe Antzokian

Ambassah presents...

Dubby gazte sopeloztarraren lehen “bakarko” lana

Ambassah presents Dub Generation da Dubby gazte sopeloztarrak plazaratzen duen lehen “bakarko” lana. Ez du bakarrik egin, halere: hamaika kolaboratzailearen laguntzagaz osatu du diskoa, baina berak ekoiztu eta sortu ditu erritmoak. Ambassadors taldeagaz hasi zenetik, talde askogaz jo du Dubby-k, baina berak azaldu digun legez: *“talde horiek jotzeko askatasuna eman didate, baina ez neukan erabakitzeke boteririk, denbora luzea neraman neure erritmoak sortzen eta gogo handia neukan horiek disko batean batzeko”*. Brixton Records zigiluagaz urrian kaleratuko duen diskoak showcase formatoa edukiko du, hau da, alde

batetik abestiaren ahozko bertsioa dago, eta ondoren abestiaren nahasketa dub bertsioan. Kantuen hitzak 5 abeslari kolaboratzaileek sortu dituzte: Roberto Sanchez (Santander), Will (Valentzia), Kenny Knots (Ingalaterra), Benjamin Jammin (Ingalaterra), eta Afrikan Simba (Nigeria, Ingalaterra). Musikari kolaboratzaileen artean daude Iñaki Yarritu, Txarli Garcia, Borja Juanco, Gorka Fernandez, Jimi Fresh edota Roberto Bartolome. Reggaearen inguruko estiloek janzen dute diskoa: dubak, eta gehien bat 80ko hamarkadako dance hall estiloak. Zuzeneko emanaldietan, berriz, Dub Generation banda edukiko du lagun. m

diskoak

Studio 150
Paul Weller
V 2



Paul Weller-en musika ibilbideak hiru garai hartzen ditu: 70etan The Jam taldean, 80etan The Style Council taldean eta hortik aurrera bakar-kak. Herbehereetan grabatutako disko honetan (hamargarrena), Weller-ek bere bizitzan funtsezkoak izan diren abestiek egiten die omenaldia, Bacharach, Dylan, Young eta abarren kantuen moldaketak eginez.

Always Outnumbered...
Prodigy
Everlasting



Zazpi urte igaro dira *The Fat Of The Land* aurreko diskoa agertu zenetik, eta lanak izan ditu Liam Howlett-ek, Prodigy-ren buruak, laugarren hau amaitzen. Abeslari gonbidatuen zerrenda luzea den arren (Oasis taldeko Liam Gallagher, Juliette Lewis aktorea...), bigarren mailan daude ahotsak; izan ere, oinarriek dute garrantzia: pum-pum-pum hori. Techno musika da, punk jarreragaz, erasotzailea eta bizia.

Inoren ero ni
Inoren ero ni
Metak



Hardcorea izan edo “post-batek-daki-zer” izan ez dute aintzat hartu Enekok (ahotsa), Mikelek (bateria), Drakek (baxua) eta Borjak (gitarak), eta rock zabalaren eremura joan dira. Abesti aske zein biziak sortu dituzte lehenengo disko honetan. Eskarmentuak balio du zerbait, baina freskotasuna da gure beldurrik gozatzeko dituen, eta horrelaxe egin dute BAP! eta Purr taldeetan ibilitako lau kide horiek.

Diskoa >

Txuma Murugarren



Nire anaiaren kotxeak argiak (*l'homme, l'être, la maladie*) izendatu du Txuma Murugarrenek kaleratzeko dagoen bere laugarren diskoa. Gaztelupeko Hotsak

diskoetxeagaz plazaratuko du Murugarrenek Zorrotzako LRAD recording estudioan grabatutako diskoa. Templar & Birdy musikariak koproduzioan egin duen lan honetan soinu elektronikoak uztartu ditu oreretarrak, eta 11 abestiek osatzen dute diskoa. Bestalde, ohiko musikariak ere eduki ditu alboan, eta zuzenekoetan ere horiek edukiko dituzte lagun: Rafa Rueda (gitarra), Rafa Acebes (pianoa), Natxo Beltran (bateria) eta Ekaitz Hernandez (baxua).

Diskoa > Urgabe Edan hemendik

Orain dela urte bi *Hi bizi hadi* diskoa kaleratu zutenetik, plazarik plaza, jairik jai ibili dira Urgabeakoak. Hala ere, disko berria prestatzeko denbora ere eduki ei dute, urrirako hirugarren lana kalean egongo dela iragarri dute-eta. *Edan Hemendik* izenburua ipini diote disko berriari, eta gogorragoa, rockeroagoa izango ei da. Bestalde, rock doinuek indarra hartuko badute ere, festa giroko kritikari ez du bere lekua galduko. Pasa berri den udan 50tik gora kontzertu eman dituzte Euskal Herri osoan, baina zorionez urria ate joka dago, eta Urgabekoen lan berria entzuteko ez dugu asko itxaron beharko.

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Egunerokoa (XXIV)
Seriez

Batzuentzat idazle batek sari bat jasotzea berme nahikoa da bere liburuak erosi eta irakurtzeko. Saria zenbat eta garrantzitsuagoa izan, orduan eta handiagoa da obrak lortzeko presioa: al bait arinen jo behar du batek liburu dendara, ekintza horrek, liburu erostearnak, epaimahaikoaren erabakiaren partaide egingo balu bezala. Hurrengo egunean, metroan, zeinen harro aterako duen alea denen aurrean, begiratzen dion orori 'Neuk badakit zer irakurri behar den' adierazten duen irribarrea zuzenduz. Gizajoa, ez daki, edo ez du jakin nahi begirada horiek ez dutela bat ere inbiria izpirik sortarazten. Hain dago bere munduan sartuta ezen ez baita ohartzen ingurukoek gupidaz so egiten diotela, 'tipo hori ez dago ondo burutik' pentsatzen dute, 'ez dago ondo, ez, zeren nori bururatzen zaio goizeko seieta halako liburukote bat irakurtzen jartzea? Baina okerrera da barre egiten duela. Hori da umorea'. Egunak, akaso asteak beharko ditu sariak liluratutako irakurleak liburu amaitezko. Zaila egiten zaio, kostatu egiten zaio istorioaren haria jarraitzea. Noiz edo noiz lagunek liburu zer moduz dagoen galdetzen diote. Ez die deus esaten. 'Ez zenukete ulertuko. Hau goi mailako literatura da, ez irakurtzera ohituta zaudeten best-seller txatxu horietako bat!'. Baina lagunak aspaldi ohartu ziren irakurketa malkartsua egiten zaiola; liburuak poltsatik ateratzerakoan egiten duen keinua ikusteak besterik ez dago horretaz konturatzeko. Baina berak ez du horrelakorik onartuko. Inola ere ez. Sariaren biktima den horrek. 4

Sautrelaren itzulera

Berriro hasiko da literaturari buruzko saioa ETB-1en larunbat honetatik aurrera

Literatur zaleak pozik egon daitezke, idazteaz eta irakurtzeaz gozatzeari begirako programa ezaguna, *Sautrela*, larunbat honetan itzuliko da-eta, Euskal Herriko etxeetako telebistetara. Programako lan taldeak gogotsu ekin dio denboraldi berriari, eta horren frogara dugu lehen programarako prestatu duten eduki zerrenda. Batetik, Mari Jose Olaziregi Euskal Herriko Unibertsitateko Filologia Fakultateko irakasle eta literatur kritikariak eta Jorge Gimenez Euskal Editoreen Elkartearen presidentea hurrengo astean Frankfurtuko azokan aurkeztuko duten *Basque short stories* edo ingelesera itzultako euskal ipuinen antologiaren hitz egingo

«Mari Jose Olaziregi eta Jorge Gimenez elkarrizketatuko ditu Etxeberriak»

dute Hasier Etxeberriarekin. Euskal literatura mundu anglosaxoniarraren ezagutzera emateko Renoko unibertsitateak martxan jarri duen planaren eskutik dator aipatu antologiaren argitalpena. *Basque short stories*-en moduko egitasmoek euskal literaturari ekar diezaioketen onura, Frankfurtuko azokaren garrantzia zein itzulpengintzaren beharra aztertuko dituzte Olaziregik eta



Argazkian, Hasier Etxeberria

Gimenezek. Erreportajeak, berriz, euskal literaturaren eta zinemaren arteko lotura edukiko du hizpide. Izan ere, Atxagaren *Obabakoak* ez da paperetik oihal handira jauzi egiten duen lehen literatur testua. Bestetik, Kirmen Uriberen eta Pako Aristiren irakurketa pertsonalak, literatur kritika, literatur bitxiak eta euskal argitaletxeen nobedadeak eskainiko ditu *Sautrela*-k astero.

Aurreko aldietan legez, literatur zaleek larunbatetan –bazkalondoan– eta astelehenetan –gauerdian– gozatu ahal izango dute *Sautrela*-rekin, ETB-1n. m

liburuak



Durduzaz eta dardaraz
Amélie Nothomb
Igela

Yumimoto enpresa japoniarreko bulegari izan zenean bizi izan zuen amesgaiztoa kontatzen du eleberri honetan Nothomb-ek. Mendebalekoa (Japonian jaio zen arren) eta emakumea izatearen trabak ederki ezagutzeko aukera edukitu zuen, nonbait, egileak. Liburu honek gatz men-dekua hartu du.



Ohe elurtuan lo egin...
Henning Mankell
Erein

Joel Gustafsson umearren inguruko hirugarren kontakizuna dugu honakoa, *Izarretara bidean* zihon txakurra eta *Itzalak luzatu egiten dira ilunabarrean* liburuaren ostean. Mankell suediarra maisua da gazte literaturan, gizakiok bizitzeko dauzkagun arazoak sakon eta hunkigarri jasotzen ditu-eta.

ETB-1 >

Udagoieneko eskaintza

Ero eta Bero umorezko saio berria, **Sorgiñen Laratza-n** aurpegi berriak, XX. mendeko Karrantzako bizimodua **Basetxea K** saioan...

ETBren euskarazko kateak udagoieneko programazioa aurkeztu du, eta hiru dira berrituta datozen saioak. Denboraldiko berrikuntza bakarra Ero eta Bero umorezko esketex osatutako saioa da. Sara Cortazar eta Jon Plazaolak aurkeztuko duten saioa eguazten gauetan izango da, eta eguneroko gertakarietan oinarritzen diren esketex, kamera ezkutuaz Euskal Herrian zein atzerrian grabatutako egoera xelebreek, txantxek eta abarrek daukate lekua programa berrian.

«Sorgiñen Laratzen Klaudioarena izango da hutsunerik nabarmenena»

Bestalde, Basetxea K-k atzera egingo du denboran. XX. mendeko bizimodura garraiatuko ditu lehiakideak, eta Karrantzako ingurueta hamaika estutasun pasaraziko dizkiete. Astelehenik eguenera, osterara, Goenkale telesailak 11. denboraldiari ekingo dio: istorio ilunak, zirraragarriak eta batez ere, aurpegi berriak iragarri dituzte. Baina bene-benetan 6. denboraldiari aurpegi berriak ekingo diona Sorgiñen Laratzako taldea da. Xabier Euzkitzek dioskunez,



Sorgiñen Laratzako taldea

“aldaketak behar genituen, eta formato aldeetik aldaketa sakonak egitea ez da erraza, telebistan dena asmatuta dagoelako”. Eta aurpegiak aldatzea erabaki dute: Xabier Mendia, Maitena Salinas eta Miriam Mirandaren eskutik dator zaharberritzea. Mikel Elizegiren laguntza edukiko du Euzkitzek, eta Anjel Alkain, Martxelo Sotes eta Asier Hormazaren pertsonaien berotasuna, baina berak aitortu digun legez: “Klaudio Landaren hutsunea da nabarmenena, 5 urtean elkarrekin aritu izan garelako”. Sorgiñen Laratza martitzen gauetan emango da. m

Telebista >

ekoizleak haserre

EITBk eta Jaurilaritzak Ikus-Entzunezkoen Europako Legea ez dutela betetzen salatu dute Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteak (IBAIA), Euskal Produktoreen Elkarteak (EPE), Gidoigileen Elkarteak, Euskal Aktoreen Batasunak eta Zuzendari Berrien Plataformak. Ikus-Entzunezkoen Europako Legeak “sormenaren garrantzia goraiatzeko duela, ekoizpen independentea babesteko duela eta telebista kate nazionalak ikus-entzunezko industriaren bultzatzaile izatera behartzen dituela” adierazi dute aipaturako elkarteek. Ikus-entzunezko elkartearen arabera, “legea betetzeko, jabsizitatearen eta diru-laguntzen bitartez jasotzen duen zenbatekoaren %5 ekoizpen independentea bideratu beharko luke ETBk, 5,4 milioi euro inguru, eta gaur egun 1,5 milioi euro besterik ez ei ditu bideratzen”. Bestalde, Jaurilaritzak ere Europako Legea bete dezala eskatzen dute.

ETBren erantzuna

Salaketei erantzunez, ETBk gogorazti du “19 filmetan, sormenezko 20 dokumentaletan, eta telebistarako egin dituzten film bitan esku hartu duela, eta telebistaz emateko 20 film laburretik gora erosi dituela”. Euren esanetan, 4 milioi euro inbertitu dituzte arlo horretan, eta gaineratu dute zinema ekoizpenean ETBk daukan partehartzea euskal ikusentzunezko enpresatan egiten ari den inbertsioaren zati bat baino ez dela, eta esparruko ekoiztetxeek ETBtik 42 milioi euro fakturatu zituztela 2003an. Ikus-Entzunezkoen lapikoa irakiten dago, eta aurrerantz ere emango du zer esana.

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Koska Irratia	104.1
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0
Gorliz Irratia	107.8

Egunkariak

prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

01 SOPELNET s.l.

Jokoak sarean ¥
Txapelketak ¥ Internet ¥
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥

ordenagailuen salmenta
zerbitzu teknikoak
kontsumitzeko gaiak, zure

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

94 676 00 62- Fax: 94 676

irabazi UKrekin

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

x Tendinitis Esgintzeak
x Erreuma x Kiroleko

deitzen duenak
masaje bat debalde
irabaziko du!!

94 491 13 37
aldizkaria@euskalnet.net

Mendieta 2, SOPELANA 17 67

Kafe Antzokiak
Sarrerak
debalde!

urriak 2 larunbata:

GROOVE? ARMADA
2 sarrera

urriak 5 asteartea:

HORACE? ANDY
2 sarrera

94 49113 37

Kafe Antzokiak
antolatutako ekitaldiarako sarrerak lortu.
UK-ra deitu eta kitto.

[sarean]

Eta orain internet

EITBk abian ipini du berrien zerbitzua sarean

Jaio berri da EITBk Interneten abian jarri duen "albisteen eta informazioen euskal kanala". Bertan, une oro eguneratua dagoen webgune dotorea aurkituko dugu. Orain arte, EITBk bere webgunean informazio korporatiboa (programazioa, telebista- eta irrati-tartei buruzko informazioa) eta zerbitzu bakan batzuk baino ez zituen aurkezten. Orain, berriz, aurrerapausu ederra eman dute: Britainia Handiko BBCk egiten duen antzera, beren beregi Internetarako pentsatutako informazio zerbitzua eskaintzen hasia.

EITB24.com helbidera sartzen direnek webgune erabilerraza eta txukuna aurkituko dute. Inork ez dezala berrikuntza teknologiko itzelik espero; bai, ordea, edozein nabigatzailetik bisita daitekeen ondo egituraturako orrialdea, garbia eta sinplea.

Berriak ezezik bestelako informazio erabilgarria ere eskaintzen du EITB24.com-ek: zinema aretoak, loteriak, botikak, eguraldia... Bai eta erabilgarritasun

aldetik zalanza sortu diguten 4 webcam! (zergatik beti honelakoak jarri behar?) Eta kritika merezi du irrati-telebista zerbitzu publiko batek sakelako telefonoentzako doinuak eta informazioa maila berean jartzeak eta nahasteak (ai, diru kontuak!).

Webgunea, berez, hiru hizkuntzatan dago: euskara, gaztelera eta ingelesa. Baina ez da azal kontua, beste web batzuetan bezala: EITB24.com-en berri guzti-guztiak itzultzen dira hiru hizkuntza hauek. Ahalegin handia, eta askok eskertuko duena, zalanza barik. m



www.eitb24.com

webgida

EUSKADI GAZTEA

>www.eitb.com/egaztea

Interneten badira zenbait agenda Euskal Herrian izango diren ekitaldi kulturalen berri jasotzeko, baina agenda gehiegi dira, eta askotan ez dira izan beharko iratekeen bezain osoak: ondorioz, zaila da erabakitzea zein aukeratu. Hemen doakizue on bat: Euskadi Gazteako webgunean, ekitaldien agenda handigura bat egin beharrean, kontzertuen zerrenda galanta sortu dute, bai eta ondo sortu ere! Euskal Herrian izango diren kontzertuak eta euskal taldeek atzerrian emango dituzten ekitaldiak hemen aipatzen dira egunez egun. Webgunea itsusia eta nabigatzen zaila da, baina edukia merezi du. Zure talde maiteen kontzertuak topa eta bertan ondo pasa, irakurle!

Sarean aurkitu ditugu >



Iratxe Marta > Uribe Kostako AEK-ko arduraduna

"Jendea behar konkretu batzuk betetzera etortzen da euskaltegira orain"



Leioako Lamia euskaltegian hartu gintuen Iratxe Martak

Iratxe Martak hamar urte daroaz AEKn beharrean. Azken hiruetan, gainera, Uribe Kostako ardura eduki du, aurretik Algortako Lauaxeta euskaltegia eduki zuen bezala. Pozik daroaz zama horiek, eta are pozago eskualdean alfabetatze eta euskalduntze koordinakundeak martxa ona daroala ikusita. AEKren beharraz oro har, eta Uribe Kostako egoeraz beren beregi, jardun dugu ondoko berbaldian.

—Helduen euskalduntzea beherantza egin da... Denak daude euskalduntuta, ala?

—Ez, kalean erdera entzuten da. Uribe Kostako herrietan behintzat.

—Euskeraz ikasteko borodantea daukaten masa kritikoa agortu da, eta orain arte ikasi ez dutenek ez dute ikasiko?

—Uste dut motibazioa aldatu dela. Moda bat izan zen, eta urte batzuetan jendeak horregatik ematen zuen izena euskaltegietan, gauza berria zelako edo ez dakit zergatik. Orain jendea behar batzuk betetzera dator:

"Lanerako behar dut, edo institutuan gainditzeko, unibertsitateko...".

—Eta ez da igartzen eskolan euskara sartu izana azken 25 urteetan?

—Ez. Eskoletan euskaldundu direnak ere edukiten ditugu. Eta ez dago halako masifikaziorik ere EGA prestatzeko, ez dagoelako beharrik euskara ezagutzeko. Lehen beste motibazio bat zegoen, egoera politikoa bategatik beste batera igaro zen, eta euskara, batzuetan, debekatuta egotetik ez egotera igaro zen. Eta jendea hurbildu zen euskaltegiara.

—Zelan dago AEK Uribe Kostan?

—Oso ondo, gero eta hobeto. Gora egin du ikasle kopuruak.

—Baina badagoz motelago dabilzan herri batzuk...

—Leioan eta Sopelan, motelen dabilzanean, arazoak eduki ditugu. Baina besteetan igoera egon da.

—Zer arazo dira aipatutako horiek?

—Orain oso harreman onak dauzkagu udalakaz, baina orain dela gutxi arte ez. Udalek euren euskaltegia eduki dute eta hura defendatu behar zuten.

«Orain oso harreman onak dauzkagu udal guztiakaz, baina orain gutxi arte ez»

—Berango, berriz, kasu bitxia da...

—Bai, bertan egoitza eduki arren, jendea Algortara joaten da beti, ez dakit zergatik.

—Autoikaskuntza aipatu nahi nuke. Gero eta lagun gutxiago euskalduntzen da, baina egia da ordukoak ere ez direla oso onak. Autoikaskuntza izan daiteke irtenbidea? AEK-ko euskaltegi batzuek badarabilte...

—Egia da ordukoak ez direla oso onak. Egutero ordu bi kendu behar dituzu zeure denboratik euskara ikasteko, eta jendea ez dago prest horretarako. Baina guk ezin dugu ezer egin. HABEren arazoa dela uste dut. HABE ez du onartzen ordukoak dagoen arazoa. Eta guk ikastaroak diruz lagundu gura baditugu, ordu horiek bete behar ditugu. Autoikaskuntzari dagokionez, asmoa daukagu eskualdean zeozer ipintzeko Lauxeta, Algortan. Baina geuk ere ikasi egin behar dugu zer den autoikaskuntza, zelan landu... AEKn prestakuntza horretan gabilza orain. Pentsatzen dut autoikaskuntzagaz orain arte izena emon gura izan ez duen jende asko erakarriko genukeela. m

Gramatika apurtxu bet

Uda amaitu da, eta gutako asko kurtso berrian hasita gagoz. Guk ere ikasteko ohitura barrero hartu eta teoria apurtxu bat ikusiko dugu. Lehenengo, bertoko euskararen artikularen erabilera zelakoa den aztertuko dugu. Ondoren, juntagailu batzuen gainean egingo dogu berba.

Testua: **Urtzi Iglesias**

Izen morfologia: artikularen erabilera

Mendebaleko euskararen gainerako barietateetan gertatzen den legez, gure euskeran ere lexemei artikulua (-/, -a, -ak, -ok) eransten diegunean aldaera batzuk gertatzen dira. Aldaerok diferentek dira lexema horien amaieraren arabera. Ondoko taulan argi ikus daiteke; bertan, bokalez eta kontsonatez amaitzen diren berbak ipini ditugu adibide legez:

<i>mugagabea</i>	<i>singularra</i>	<i>plurala</i>
...a + a		
alabá / neská	alabé / neské	alábak / néskak
...e + a		
semé / etzé	semé / etzé	sémek / étzek
...i + a		
herrí / idí	herrí / idí	hérrik / ídik
...o + a		
astó / basó	astó / basó	ástok / bások
...u + a		
eskú / katú	eskú / katú	éskuk / kátuk
...ai + a		
arráin	arrañé	arrañek
...oi + a		
balkóí / koltxóí	balkoyá / koltxoyá	balkóyak / koltxóyak
...(kontsonante) + a		
gixón/lagún	gixoná/laguné	gixónak/lagúnek

Taulan ipini ditugun aldaerak hobeto ulertzeko eta praktikatzen has gaitezen, esaldi batzuk ikusiko ditugu orain (horren ondoan, batuaz zelan esaten den ere ipiniko dugu):

...a + a
Beste alkondare tzikitxuau da, alabe ibiltzen da orreaz. (Getxo)
 ‘beste alkondara txikiagoa da, alaba ibiltzen da horrekin (jantzita)’

...e + a
Etzakon gustaten, ze jente yoten san... (Urduliz)
 ‘ez zitzaion gustatzen, jendea joaten zen eta...’

...i + a
...etxe banaka bat, ze osten dana baserrik (Sopela)
 ‘...etxeren bat, bestela, denak ziren baserriak’

...o + a
Italianok ta morok be pasa ziren (Sopela)
 ‘Italiarrak eta mairuak ere pasatu ziren’

...u + a
Ez zan eoten ezeberetz ordun (Sopela) ‘orduan ez zegoen ezer’

...(kontsonante) + a
Neure gizonak ez deko beharrik (Algorta)
 ‘nire gizonak ez dauka lanik’

Juntagailuak

Baie (baina)

Krieda ibil naz denpore gehienen, baie etzen eoten nintzenen, Plentzire yoten nintzen benedeje saltzen (Urduliz)
 ‘Neskame ibili naiz denbora gehienean, baina etxean egoten nintzenean, Plentziara joaten nintzen benedeja saltzera’

Osten (bestela)

Pandereteruk kanta iteu, osten... ez dau konkurso baterako balio pandereteruk kanta itten ez badeu (Berango)
 ‘Panderoleak kanta egiten du, bestela... ez du konkurso baterako balio, kantatzen ez badu’

Ze (... eta)

Felisa! Ez yo ezebere ze nire semeak zuk baño hobeto yoten dau (Getxo) / ‘Felisa! Ez jo ezer, nire semeak zuk baino hobeto jotzen du eta’

Bere ez / be ez (ezta...ere)

Ez zan eoten kotzerik ez ezebez, bizikletarik bez (Sopela) / ‘Ez zegoen ez kotzerik ez ezer, ezta bizikletarik ere’

Esakere “Gose-bedarra zapaldu dau horrek”



Bildurrek hegok emoten dauzela esaten da sarri, baia beste aldarre batzuk bere emoten daude zeozer: gosek, esate baterako. Ez gaitezen imiñi gose dan morroian biden, **gose-bedarra zapaldu** daunek gu geu bere zapalduko gaituz eta! Beste alde batetik, gaur egun gose barik jaten usata gauz, gosari dala, pintxotxu bet dala, izozkitxu bet bere bai...eta holan egune akaba arten: **beti jan ta beti gose** gara gu. Baia gose-gose, egiteko gose, zer dan ezetu daunek (gutariko gitxi) beste esate bat noraiño egi dan jakingo dau: **gose bera da gozo!**

Iñaki Gamindek baturiko esakera bat dozue hau: “Urdulizeko berbak eta bizi-modu” liburun topako dozue.

Gorka Vázquez

Gureberbakerak

ESAKERA ZAHAR BATZUK

Testua: **Xabi Bilbao**

Nahiko sarri erabilten doguz danok animala edo piztikez egineko esakerak pertsonen izakere edo egikere aitetuteko. Esate baterako, hor dago **A ze pareá, karakola eta barea! esakere, danok erabilten dogune lagun bi (portakera edo itxure aldetik) alkarren antzeko direzela esateko. Leku askotan erabilten da esakeratxu hori, eta Azkuek Derion batu eun. Hemen doatuz euskerazale handi horrek Bizkaiko lurretan batu euzen beste esakera batzuk, piztin bitartez gure izakere erakusten daudenak:**

- *Alda [lekua aldatu] asko, arrain gitxi* (Lekeitio).
- *Arranoa hegaz baño txepetxa eskuan hoba* (Markina).
- *Ardien kulpea bildotsak pagau* (Arrasate).
- *Astoak esan leio mandoari: ken hakit horrago, belarri!*
- *Aume ago-bigunak ama biren esneak edaten dauz* (Derio).
- *Auzoko behiak esne asko, ezta izan etxekoa laso* (Derio).
- *Bakotxak bere astoari arre* (Arrasate)
- *Bene-benetan, katua berbetan* (Dima)
- *Edozein txoriri eder bere habia.*
- *Erroiaren arrautzak usakumerik ez.*
- *Itxura barik sapoa saltari.*
- *Goazan beste herrina, han bere txakurnak ortozik dira* (Derio).
- *Gorbeiaiko belea, Gorbeiana yokerea* (Berriz)
- *Kitu: asto bat hil ta beste bat biztu* (Derio, Lekeitio)
- *Lukikumea luki.*
- *Lurra bigunago, harra barrurago.*
- *Otoak otsokirik eztau jaten.*
- *Saiak jan dost bildotsa, ordeko itxi dost korotza.*
- *Sardina-erdi jan, sardina-erdi lan* (Amoroto).
- *Satorrentzat etzan polaiñarik egin* (Mundaka).
- *Sugea hilagatik sugakumea bizi.*
- *Txakur ausilaria ezta haginkaria.*
- *Txori gosea kantari* (Arratia).

Aume: antxume; Epetx edo txepetx: txori mota bat (txikerra neurri aldetik); Erroi: bele mota bat (gorputz handiko); Luki: azeri; Sai: putre.

I aki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
 Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90
 Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO?

GIZONENTZA - KO MODA

Telletxe 5
 ALGORTA
 T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
 T: 4910821
 ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Txarri solomoa

laranja saltsaz eta sagarraz

Astirik ez eta gonbidatuak etorriko zaizkizula etxera? Erraz eta arin egiten den plater hau proposatzen dizuet. Hasteko, txarri solomoa osorik gatz-piperztu eta zartaginean su bizian urrezatu. Gero labean bost bat minutuz eduki barrutik egin arte. Eginda dagoenean xerretan zatitu. Bestetik, saltsa prestatuko dugu. Basobete ozpin eta basoerdi azukre sutan ipini hamar bat minutuz. Gero basobete laranja-zuku eta labean okelak askatu duen zukuare ere gehitu eta saltsa loditu arte su ahulean eduki (hamar minutu). Saltsa hau solomotoxoaren gainean bota eta kitto. Sagarrekin ere lagundu daiteke platera. Horretarako sagarra garbitu eta lau zatitan ebaki. Gero gurinean frijitu azukre apur batez. On egin! m

osagaiak (lau lagunentzat)
txarri solomotoxo bat • gatz lodia • piper hautsa • ospina
laranja zuku • sagar bi



itsaso arana / jolastoki-koa

Modan

dauden ardoak

Gauza jakina da egiten ikusi duguna geuk ere egiteko ohitura hartzen dugula. Ardoari dagokionez, gure gurasoek ospakizun berezietan, esaterako, Tondonia, Arana edo Ardanza bat eskatzen dutela ikusi badugu, gehienetan gauza bera egingo dugu guk aurrerantzean. Baina ohiturari beste indar bat, berrikuntzaren indarra kontrajartzen zaio eta horrela gertatzen dira aldaketak. Ardotan modarik bai? Ba, bai. Gaur egun modu askotara deitzen zaie modan dauden ardoei: egile ardoak (vinos de autor), izen handiko ardoak (vinos de alta expresión) edo sorterriko ardoak (vinos de terruño). Baina zer ezaugarri dute gaur egun modan dauden ardoek? Batez ere bat: ardo frantsesak imitatzen dituzte gehienek, hau da, taninoak erraz igartzen dira, gorpuzdunak dira, mazerazio luzekoak, egilearen ukitua bilatzen da, eskusibitatea... Denak ere oso garestiak izaten dira, 30 eurotik gorakoak (Abadia de Retuerta, Artadi, Viña el Pisón, Pingus...).

«Ardogile asko ardo frantsesak imitatzen dabilta nazioarteko merkatuan euren produktoak kokatzeko»

Eta bigarren galdera hauze litzateke: Zergatik gertatzen da hau? Ardo frantsesak izen handikoak dira eta mundu osoan edaten dira. Gauzak horrela, ardogile askok nazioarteko merkatuan euren produktua kokatu ahal izateko bide erraza ikusten dute era honetako ardoak egite horretan. Bestetik, esan beharra dago bide hori jarraituta, ardo klonikoetarako bidea hartzen dela, hau da, azkenean denak antzeko. m

33 jantokia

gaur egungo jate txeko zintzoa



Argazkian, Eskauriazatarrak eta Sergio Solla sukaldaria

Bilbon zabaldu berri dute Getxoko Eskauriazatarrak anaien ahotan dabilen Ogetamairu jate txea. Hara jo genuen eta segituan maitemindu ginen 33gaz. Izan ere, bisitariak segituan giro berezia, berri-zaila eta gaur egungoa arnastuko du jate txearen atea zeharkatu bezain pronto. Batetik, jate txearen itxurak liluratu gintuen; espazioaren diseinua, puntako argazkilarien lan ederrez jositako orma zuriak... Ezohiko leku batean dagoela sentituko du jatera doan edonork. Bestetik, eta jate txeari batean garrantzitsua den gauza, jate txeko bera ere sorpresa oso atsegina da. Sergio Solla gaztea dabil sukalde lanetan eta karta ederra osatu duela iruditu zitzaigun.

Hango eta hemengo platerak sartu ditu (carpaccioak, rissotoak,...) baina gure betiko produktuak ahaztu barik. Guri bereziki gustatu zitzaizkigun taloa, foie eta arrautza apurtuak, odoloste gozokiak gerezi zukuarekin, eta postreko arrozesa edo txokolata-zuri zopa sagar-izozkiarekin. Gainera eguneko menu merke eta kalitate handikoa jan daiteke bertan. Esan dugun legez, 33gaz maitemindu ginen; nonori sorpresa atsegina eman nahi badiozu, eroan ezazu hara eta ez zaizu damutuko. m

OGETAMAIRU Bailen 4, Bilbo
Eguneko menua: 8,50 euro
Karta: 25-40 euro / Menu berezia: 22 euro
Telefonoa: 94 415 71 35

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 - Tlf.: 94 491 06 54
ALGORTA

Jurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

Taberna Bern
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

BIZARRA LEPOAN
EUSKARA ELKARTEA

AEROBIC
IKASTARROAK
EUSKARAZ



NOIZ
URRITIK EKAINERA
BITARTEAN • ASTEAN 3
EGUN (ASTELEHEN,
ASTEARTE ETA OSTEGUN)

ORDUA
20:30ETATIK 21:30ETARA

PREZIOA
20 EURO BAZKIDEEK ETA
25 EURO EZ BAZKIDEEK
(HILABETERO)

LEKUA
SAN NIKOLAS IKASTOLA

IZENA EMATEKO
94 491 43 57
BIZARRALEPOAN@EUSKALNET.NET

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA
KARITATEA 1, ALGORTA



ITXASOANE

prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aurriluz 2/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 Juan Bautista Zabala, 5
AREETA ALGORTA
T. : 94 464 89 94 T. : 94 491 13 94

**VILLABOTAS
JATETXEA**



Menu merke eta askotarikoak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

<p>URA t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Udako ajea kendu ezinik zabilta, eta orain daukazu gorputza garbitzeko ordua: saunan 20 minutu, barazkiak eta frutak ia egunero, eta asteburuetako parranda, azarora arte ezer ez!</p>	<p>OTSOA t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Sasoi berria, bizimodu berria! Armairuko arropa zatarrak zakarrontzira, zapata beltz horiek kendu begibistatik, ilean look aldaketa, eta ligatzeko teknikak berrizatu! Romeo eta Julietaren garaiak aspaldi joan ziren!</p>	<p>ADARRA t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Aurtongo udak on egin dizu: dotore janzen zara, ilea garbi-garbia darazazu, eta ganoraz berba egiten ikasi duzu. Ligatzea espero bazenuen, sentitzen dut. Negua arte itxaron beharko duzu.</p>
<p>AITZURRA t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Udako jaietako parrandek neurona barik utzi dizute burmuina. Non zauden ere ez dakizu, eta txoriz beteta daukazu burua. Jaitsi zaitez lurrera, uda amaitu da, eta lanean hasteko garaia duzu!</p>	<p>HOSTOA t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Irailean egin zenituen ehundaka promesa horiek non daude? Kirola egin, gutxiago edan, zintzoa izan... Zer esaten ari naiz, mirariak Lurdesen ere ez!</p>	<p>EGUZKIA t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Ummmm!! Zer egin duzu, <i>Eguzkia?</i> Inoiz baino sexiago zaude! Feromona usaina honaino ailegatzeko zait. Ziur ligatu egingo duzula! Gainera, gauzak ondo egiten badituzu, amodioa eta adiskidetasuna elkartuko dituzu.</p>
<p>GARIA t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Osasuna eta amodioa. Horiek dira estreinatutako berri dugun sasoiak ekarriko dizkizun bi oparirik garrantzitsuenak. Zintzoa izan zara, eta orain jasoko duzu fruitua.</p>	<p>LASTOA t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Udazkenak zorzea ekarriko dizu lan kontuetan. Proiektu berriak daukazu airean, eta uste baino lehen birbilkuko zaizkizu. Ausardiagaz hartu gauzak, egin aurrera eta konfiantza eduki!</p>	<p>IRATZEA t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Badakit hartu duzun erabakia gogorra dela, baina denborak arrazoia emango dizu. Hasierako egun latzak pasako dira, eta etorriko zaizu merezitako saria. Animo!</p>
<p>META t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Zer diozu? Zaharra zarela? Sasoi hone-tan urtero berdin zabilta. Urteak betetzea gauza ona dela zenbat bider esan behar dizut? Ligatzeko beste tekniken bat aurkitu ezazu, faborez.</p>	<p>HAZIA t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Venusek energia ona bidaltzen dizu, dena ondo aterata dadin. Inora joateko aukerarik eduki ez duzun, hemendik aurrera ateratzeko gogo handia edukiko duzu. Badi-rudi erromantizismoak utzi egin zaituela.</p>	<p>NEGUA t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Udazkenak espero ez zenuen sorpresa ekarriko dizu. Zer den jakiteko aste batzuk itxaron beharko duzu. Pazientzia eduki, zure bizitzari poztasuna ekarriko dion zeezer da-eta.</p>


mungia
OKINdegia



Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".


Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Mintzaidea, berbalaguna. 2. Arbasoa. Noka, naiz. 3. Ez du ikusten. Alokairua, alogera. 4. Gogorrak. Atzizkia. 5. Sumendiaren ahoa. Potasioa. 6. Kanpo. Ukapena. Bizkaieraz, omen. 7. Seta. Izaki txiki bakun, hainbat eritasunen sortzailer. 8. Bokala. Lehen bokala. Baldintza partikula. Ardi, hitz elkarketan. 9. Nekatu, unatu. Kasik. 10. Baserritarrak ez direnak.

Goitik behera

1. Saikapenaren arabera ordenatuak. 2. Eguzki-tarte. Dago. 3. Lasto, hitz elkarketan. Posta adierazten duen ingeles hitza. 4. Agorri. Suari dario. 5. Atzizki femeninoa. Euskaraz eta kito!. Bi ken bat. 6. Potasioa. Akrobaziak egiten dituen. 7. ... egina, total egina. Italiako telebista. H2O. 8. Du. Egiptoko jainko. Röntgen. 9. Europako diru. Zeruko ura. 10. Anarkoak.

Soluzioak

K	A	L	E	T	A	R	H	R	A	K
A	D	I	K	A	T	U	I	A	I	A
T	R	A	V	A	B	A	B	A	U	T
S	U	R	B	I	R	M	A	T	E	M
I	E	I	A	O	K	U	K	A	V	T
K	A	R	R	A	T	E	R	R	A	K
R	O	K	A	K	K	V	Z	T	L	A
A	R	U	K	A	V	S	U	I	T	S
N	A	B	A	N	A	V	S	A	V	N
E	A	S	K	I	D	E	A	S	O	L

asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak



Nor da?

- Langileen aldeko politikaria
- Gosearen aurkako borroka du bere jomugan orain
- Brasildarra da

> Aurrekoaren erantzuna: Salvador Allende

> Irabazlea: ***Libe Goikoetxea**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean Argia astekariaren opari sorta ederra zozketatuko dugu.

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48998 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren biru hilabeteko harpidetza doan



• 1500. urteko Europako maparen lamina

cianoplan s.a.
global printers

Villa de Pientzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo

tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91

http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!



Abertzale algortarrak, 1932

Alberto Gorospek idatzi zuen *Batzokis de Bizkaia* liburua begiratzen genbiltzala goiko argazkiarekin egin genuen topo. Ez dugu irudiaren gaineko azalpen handirik aurkitu, 1932 edo 1933 aldera egin zela baino ez, eta bertan daudenak EAJ alderdiko kide algortarrak zirela. Irribarretsu agertzen dira guztiak erretratuan, izan ere gerraurrea zen eta artean ezin zuten pentsatu ere egin zer garai latzak biziko zituzten urte batzuk geroago. m

Agerzen direnak, goitik behera eta ezkeretik eskuinera:

Felix Bilbao, Adolfo Sarria, Emilia Albizu, Marcelino Motagoikoa, Txema Kamiruaga (?), Feli Llantada, Eli Gaubeka, Mari Uriarte, Eduardo Sarria, Luciano Sarria, Carmen Arteta, Maria Luisa Kortazar, Susana Kortazar, Jose Mari Natxitua, Boni Aretxabala, Maria Angeles Astorkiza, ?, Isabel Ibarzabal, Elixabete Arrieta, Mari Carmen Igual, Maria Agirregoitia, Edelmira Eskibil, Eloisa Pomposo, Carmen Zabala, Conchita Saitua, ? Miren Gorroño, Garbiñe Epalza, Mari Zunzuneegi, Segundo Atxurra, Merche Agirre, Miren Arrieta.

[aitormenak]

GORKA OTXOA > aktorea

Historiako pertsonaia bat? Che Guevara

Testua: **Jon Urresti**



Definitu ezazu zeure burua berba bitan. Jatorra eta lotsatia.

Zein animaliaz zatoz bat?
Zaldiarekin, behintzat hori da gehien gustatzen zaidana.

Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?
Zerbait berria esan eta jendea pentsatzera bultzatuko lukeen edozein.

Eta zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera? *El Pianista*.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien? Che Guevara.

Zure jakirik gogokoena.
Nire neskak prestazen duen oilaskoz eginiko plater katalan bat.

Aitortu dezakezun bizio bat. Noizean behin jatetxe on batera joatea.

Oporretara joateko lekurik aproposena.
Uda honetan, adibidez, Austrian egon naiz eta izugarri gustatu zait.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Gezurra esatea.

Zer janzten duzu lo egiteko? Pijama bat.

Ezin zaitezke bizi... Jan, edan edo lo egin gabe.

Zer gordetzen duzu sakeletan? Giltzak, mobila, diru-zorroa eta...

Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.
Zorte ona ematen duen (teorian, noski) begi turkiar bat.

Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?
Euskal Herriak independentzia eta bakea lortzen dituela.

Ohitura txarren bat... Azazkalak jatea.

...Eta sineskeriaren bat. Ez daukat sineskeria berezirik.

Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea? Neure buruan.

Zein de gehien errepikatzen zaizun ametsa?
Normalean ez ditut ametsak oroitzen.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?
Orain dela gutxi, *Mar adentro* pelikula ikusten.

Zure azken erokeria.
Hau niretzako gordetzen dut, bestela erotuta nagoela pentsatuko dute! (barreak). m

LABURREAN— *Vaya Semanita* ETBko saioren arrakastatsuenen (250.000 ikusletik gora lortu izan ditu azken boladan) dabil, baina arte eszenikoek daukaten alderdi ia guztiak dastatu ditu. Gorka Otxoa (Donostia, 1979) dantzan hasi zen 13 urte zituela: Kresala Euskal Dantza Taldeari esker Europan barrena ibili zen, bai eta zarzueletan parte hartu ere. Oholtzara igo da *Sin-Vergüenzas*, *Kókorokó* edo *Érase una vez... o casi bezalako antzezlanak antzeztera*. Carmen Mauraren semea izan da *El Palo* filmean, eta zinemaldietan sariak barra-barra jaso dituen *Él sí se entiendo* film laburrean ikus dezakegu. Baina sarri gertatu ohi den moduan, telebistaren eragin itzelak eman dio ospea: batik bat, *Goenkale* (ba ete dago telesail honetan oraindik agertu ez den euskal aktorerik? Gorka 400en bat ataletan egon zen) eta aipatutako *Vaya Semanita*. Madrildik ere deiak jaso izan ditu *El Comisario*, *Hospital Central* eta *Cuéntame* telesail ezagunetan agertzeko.

Egiozu opari bat zure buruari...

ARGIA
EUSKAL HERRIKO ASTEKARIA



... eta guk beste bat egingo dizugu!

Harpidetza orain egiten baduzu, opari eder hauetako bat aukeratu ahal izango duzu
Informazio gehiago nahi baduzu: ARGIA • ☎ 943 37 15 45 • e-posta: harpide@argia.com • www.argia.com